Osasun-sistematik igarotzen diren indarkeriaren biktimek baliteke indarkeria-egoera jasaten ari direla esplizituki adieraztea ala ez. Hala ez bada, baliteke indarkeria-egoera jasaten ari direla agerian uzten duten zantzuak eta sintomak izatea. Kasu horietan, beharrezkoa izango da emakumeari galdetu eta ikertzea, indarkeria-egoerak baieztatu edo baztertzeko, betiere bere denborak errespetatuz.

Historia klinikoan indarkeriarik erregistratzen ez bada, jarraipen-ekintzak aktibatuko dira lehen arretatik. Indarkeriaren biktima izan diren seme-alabak ere faktore erabakigarria izan daitezke indarkeria identifikatzeko.

Hasierako Oinarrizko Jarduketa:

Jarduteko eskemaren diseinua arretarako edozein testuingurutan kasu bat hautematen duen edozein profesionalak aplikatzeko dago egina (larrialdiak, lehen arreta, ospitaleratzeak...) eta item hauek ezartzen ditu:

1. Emakumea **ENTZUN**.
2. **HARRERA ETA ENPATIA**.
3. **ARRISKUEN BALORAZIOA**. Emakumearen bizitzarako eta seme-alabentzat dauden arriskuak ebaluatu. Hil ala biziko larrialdien zantzuak eta sintomak (baldin badaude), arrisku psikologikoa, egoera soziala, segurtasun-falta, isolamendua eta seme-alaben egoera (baldin baditu) artatu. Egoeraren arabera, baliabide batera edo bestera bideratuko dira:
 - Larrialdi sozialaren kasuan, gizarte-zerbitzuen arloko larrialdi sozialen zerbitzuarekin jarriko da harremanetan.
 - Arriskuan dauden adingabeen kasuan, pediatriako erreferentziazko zerbitzuekin, familiako medikuarekin, erreferentziazko erizainarekin, dagokion gizarte-langilearekin eta haurren gizarte-zerbitzuarekin jarriko da harremanetan, betiere amaren baimena izanez gero, salbuespen kasuetan izan ezik (abandonuaren, buru-nahastearen eta abarren adierazle esanguratsuak).
 - Emakumearen eta seme-alaben segurtasunerako beharrezkoa izanez gero, polizia-kidegoari eta

zentroko segurtasun-zerbitzuei jakinaraziko zaie. Emakumearen segurtasunerako edo osotasun fisikorako arriskua baldin badago, SOS Deietara, Ertzaintzaren polizia-etxera edo Udaltzaingora deituko da.

- Berriki izandako lesio edo sexu-erasoen kasuan, gertuen dagoen ospitaleko larrialdi-zerbitzura bideratuko da, premiazko balorazio fisiko eta psikologikoa egiteko.
- Berriki eginak ez diren lesio edo sexu-erasoen kasuan, gertuen dagoen ospitalera bideratuko da, balorazio fisiko eta psikologikoa egiteko eta behar diren kontsultak aktibatuko dira.

4. **JARRAIPENA ETA BIDERAKETA.** Laguntzaren jarraipena bermatuko da eta emakumea bere erreferentziatzeko osasun-langileak arta dezan saiaturako gara (Lehen Arreta). Modu proaktiboan bideratu behar da, pazienteari ez zaio besterik gabe gomendatu behar bere profesionalarekin harremanetan jartzeko. Bere ohiko profesionalak egoeraren berri izateko eta dagokion esku-hartzea egiteko komunikazio-bideak ezarri behar dira.

Era berean, emakumea beste osasun-langile batzuek ere artatzen badute eta indarkeria-egoerak arazo horrengan eragina badu (buruko osasunean, esaterako), komeni da arazoaren hedapena egitea, koordinazio eta ekintza-plan bateratuak egiteko.

5. **ERREGISTROA.** Jarduketa oro emakumearen historia klinikoan erregistratu behar da. Gidak informazio xehea ematen du kasua nola erregistratu jakiteko. Erregistro honek laguntzaren jarraipena eta eremu desberdinetako profesionalen koordinazioa ahalbidetzen du, emakumeari edo instantzia judizialei informazioa ematen die, benetako prebalentzia ezagutzeko aukera ematen du, etab.⁷ Modu ulergarrian informatuko zaio zer datu jasoko diren, zertarako, nola gordeko diren eta nor arduratuko den horiek behar bezala erabiltzeaz. Datuak jakinarazteak zer onura dakartzan informatuko zaie eta ez egiteak zer ondorio izan ditzakeen, baita zuzentzeko eta bertan behera uzteko duten eskubideaz ere. Gainera, datuak konfidentzialak izango direla eta datuak jasotzeko xedearekin lotura dutenek soilik erabiliko dituztela jakinaraziko zaie. Datu horiek beste zerbitzu batzuei (beste erakunde edo sistema batzuetakoak) lagatzea aurreikusten bada, horren berri izan beharko du pertsonak eta horretarako baimena emateko⁸ edo ez emateko aukera eman beharko zaio. Baimen hori idatziz edo egiaztatuta geratzeko moduan jaso beharko da.
6. **KOMUNIKAZIO JUDIZIALA.** Lesio fisikoak edo psikikoak badaude laguntzeaz arduratuko den profesionalak dagokion lesioen parteen eredia bete beharko du, eta emakumeari jakinarazi. Halaber, kopia bat epaitegira bidali beharko du, baldintza hauek kontuan hartuta:

- Betiere emakumeak eskatu edo onartu badu. Arrisku altua ez badago, emakumeak erabilgarria eta ona dela uste duenean bidaliko da, bere etorkizunari buruzko alderdi zehatzei buruzko erabakiak hartzen ari denean.
- Emakumeak edo hirugarrenen indarkeriaren gertakari larriak jasateko arrisku altua eta gertuko dagoela baloratzen denean edo Prozedura Kriminalaren Legearen arabera indarkeria-gertaera larria bizi duenean.⁹

Hori guztia, indarkeria matxistaren arretarako eta babeserako prestazio publikoen onuradun izateko legezko ekintzarik ez egiteko biktimak duen eskubidea errespetatuz.

⁷ Genero-indarkeriaren eta sexu erasoen aurrean jarduteko osasun-langileentzako jarduketa-gidak <https://www.euskadi.eus/guia-de-actuacion-ante-la-violencia-de-genero-y-las-agresiones-sexuales-en-euskadi/web01-a2inform/es/>, erregistroaren eta kodifikazioaren eta konfidentzialtasunaren modu egokiari buruzko informazio zehatza eskaintzen du.

⁸ Puntu horri buruzko xehetasun gehiago izateko, Emakundek 2015ean egin zuen "Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak direnen datu pertsonalen tratamendurako gida" lanaren 2022ko azken eguneraketa eta protokolo honen IV. ERANSKINA kontsulta daitezke.

⁹ Prozedura Kriminalaren Legea (259. artikulua eta hurrengoak)

Horrez gain, haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko 2021eko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera (15. artikulua), haur edo nerabe adingabeen aurkako indarkeria-egoeren edozein zantzu hautematen dituzten eragile guztiek Poliziari, Epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko diote eta, babesgabetasun-egoeraren bat hautematen badute, baita haurren arretan espezializatutako Gizarte Zerbitzuei ere. Dena dela, biktimei ofizioz hasten diren prozeduren berri eman behar zaie. Garrantzitsua da azaltzea gizarte-zerbitzuei jakinaraztea ez dela salaketa jartzea eta, hortaz, ez duela prozedura judizialik eta urruntze-agindurik aktibatuko¹⁰.

7. **ALTA TXOSTENA:** kasua larrialdietan, ospitalean, larrialdiko etxeko arretan, etxeko ospitalizazioan edo larrialdi zerbitzuetan hauteman bada, oinarrizko hasierako jarduketa bukatutakoan alta-txostena emango da.
8. **JARRAIPENA ETA BIDERAKETA:** laguntzaren jarraipena ziurtatu behar da emakumea bere erreferentziazko osasun-profesionalak artatzen jarrai dezan, laguntzeko esku-hartze eta jarraipen pausatu eta planifikatua egin ahal izateko. Horretarako, pazienteari ohiko profesionalarekin kontaktuan jartzeko gomendatuko zaio eta, era berean, ohiko profesionalak egoeraren berri izateko eta dagokion esku-hartzea egiteko komunikazio-bideak ezarriko dira. Kasua hauteman duena erreferentziazko profesionala bada, laguntzarako esku-hartzerako hitzordua finkatuko da jarraipena egiteko.

LESIOAK EDO SEXU-ERASOAK IZANEZ GERO:

Biktima batek osasun-laguntza behar duten lesio fisiko, psikologiko edo emozionalak baditu edo duela gutxi sexu-erasoak jasan baditu, ospitaleko osasun-zentroan edo larrialdi-zerbitzuan emango zaio arreta, dagokionaren arabera.

Duela gutxiko sexu-indarkeria (azken 240 orduetan gertatua)

Emakumea edozein arreta-testuingurutatik sartzen bada edo bertan jarraitzen badu (Larrialdi Zerbitzua, ziurrenik), erasoak jasan duen emakumea itxarongelan ez egotea lortuko da, eta konfiantzazko pertsona batek laguntzea erraztuko da. Ez garbitzeko eta arropa ez aldatzeko esango diogu, baita ez jateko edo ez edateko ere felazioa izan bada, ahal den heinean.

Gertuen dagoen **ospitalera** bidaliko da lehenbailehen eta ez garbitzeko eta arropa ez aldatzeko esango zaio, baita ez jateko edo ez edateko ere felazioa izan bada, ahal den heinean.

Kontuan izan beharrekoa: sexu-erasoen aurrean jarduteko ezinbestekoa da ospitaleak koordinazio ona izatea guardiako epaitegiarekin.

- **EMAKUMEA SALAKETA JARRI ONDOREN JOAN DA OSPITALERA:** Ospitaleak guardiako epaitegiari eman behar dio egoeraren berri, eta baimen judiziala izan ondoren, auzi-medikuak artatuko du pazientea guardiako ginekologoarekin batera. Salaketarik ez dagoenean eta biktimak delitua ospitalearen bidez salatzeak nahia adierazten duenean, polizia-kidegoari jakinaraziko zaio. Beharra balego, deklarazioa ospitalean bertan hartu ahal izango du (era berean, beharrezkoak diren beste baliabide edo zerbitzu batzuk ere aktibatuko dira, Ofizioko Txanda, etab.)
- **EMAKUMEA SALAKETA JARRI GABE JOAN DA OSPITALERA:** Biktimari jakinaraziko zaio osasun-langileak legez derrigortuta daudela halako gertakariak **epaitegiari jakinaraztera**. Ospitaleko medikuak artatu egingo du eta auzi-medikuak delitua ikertu (lesio-motak, lagin biologikoak eta biologikoak ez direnak jaso, etab.).

¹⁰Xehetasun gehiago: [Genero-indarkeriaren biktima diren seme-alaben aurrean jarduteko gida, osasun arloko profesionalei zuzenduta](#). Osakidetza (2024).

Ospitaleak berehala jakinarazi beharko dio gertakaria guardiako epaitegiari, emakumeak salaketa jarri nahi duen ala ez gorabehera. Gainera, emakumeak delitua salatu nahi badu, Ertzaintzari ere jakinaraziko zaio, eta Ertzaintzak lege-laguntzarako ofiziozko txandan dagoen Abokatuen Elkargoari.

Biktimak ez baditu gertakariak salatu nahi, ez eta babes-agindurik eskatu ere, hori egiteko arrazoitzeko azalduko zaio salaketa ez dela eskubide bat soilik, jasaten ari den indarkeriazko harremana hausteko modu bat ere badela, eta, komeni bada, Justizia Administrazioaren babes-mekanismoak (erasotzailea urruntzea, poliziaren babesa, aitzak semearekiko edo alabarekiko dituen eskubideak etetea, etxebizitza erabiltzea, mantenu-pentsioa, etab.) baliatzeko moduak haren laguntza eskatzen duela.

Berriki gertatu ez den sexu-eraso baten aurrean jardutea (240 ordu baino gehiago) edo ageriko lesio fisiko edo psikikoen aurrean.

Biktima batek osasun-arreta behar duten lesio fisikoak, psikologikoak edo emozionalak baditu edo egin berriak ez diren eraso sexualak pairatu baditu, osasun-zentroan edo ospitale-larrialdi zerbitzuan artatuko dute, hala badagokio.

Berriki gertatu ez den sexu-erasoaren edo ageriko lesio fisikoak edo psikikoak dituen pazientearen balorazioan ez da beharrezkoa izango pazientea ospitalera bideratzea. Horrelako kasuetan pazientearen balorazioa ospitaleetan egin beharko da sexu-erasoa berriki gauzatu bada (240 ordu baino gutxiago) eta ospitaleetan edo osasun-zentroetan eraso ez bada berriki egin (240 ordu baino gehiago).

Biktimari jarduketa azalduko zaio, ahal den heinean, eta baimena eskatu.

- Laguntzeko jarduketa eta balizko kalte fisiko eta/edo psikikoei dagokien tratamendua. Jarduketa-planarekin hasteko dagokion diagnostikoa/jarduketa-terapeutikoa egingo da: serologiak eskatu, sexu-transmisio bidezko infekzioak baztertu, hepatitis Baren aurkako txertoa...
- Lesioen parteak betetzea eta biktimari irakurtzea.
- Emakumea salaketa jartzera animatuko dugu, polizian, fiskaltzan edo guardiako epaitegian. Emakumearen segurtasunerako edo osotasun fisikorako arriskua baldin badago, SOS Deietara, Ertzaintzaren polizia-etxera edo Udaltzaingora deituko da.
- Biktimari jakinaraziko zaio osasun-langileak legez derrigortuta daudela halako gertakariak **epaitegiari jakinaraztera**. Lesioen parteak ahalik eta azkarren igortzea Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Epaitegira edo Guardiako Epaitegira.
- Lesioen partearen kopia eta epaitegira igorritako idatziarena biktimari ematea, horrek bere segurtasun pertsonala arriskuan jartzen ez badu. Kasu horretan konfiantzako pertsona baten izena eskatuko zaio jasotzeko.
- Lesioen parteak eta igorritako idatzia biktimaren historia klinikoan sartzea.
- Laguntzeko lehen jarduketa Larrialdi Zerbitzuetatik edo Espezializatutako Arretatik egin bada, biktimari mediku-txostena ere emango zaio, bere erreferentziazko medikuak jarraipen egokia egin ahal izateko. Medikuekin kontaktatu eta koordinatu beharko da, biktima bideratzeko eta beharrezkoa den jarraipenerako arretara sartzeko.

- Biktimari neurri sozialen eta babesleen berri emango zaio osasun-zentroko baliabideen bidez, edo Gizarte Zerbitzuetako profesionalekin koordinatu eta kudeatuko da premiazko kontaktua.

Laburbilduz¹¹, lesioen parte igortzeko baldintza hauek izango dira kontuan:

- Betiere emakumeak eskatu edo baimentzen badu.
- Emakumeak indarkeriaren gertakari larriak jasateko arrisku altua eta gertukoa dagoela baloratuz gero, nahiz eta berak nahi ez izan.

Arrisku altua ez badago, emakumeak erabilgarria eta ona dela uste duenean bidaliko da. Hau da, osatze-prozesu pertsonalean dagoenean, bere etorkizuneko alderdi batzuen inguruko erabakiak hartu dituztenean eta bere bizitzako egoera aldatzen hasteko estrategia prest duenean¹².

¹¹ Genero indarkeriaren eta sexu erasoaren aurrean Euskadin nola jardun jakiteko gida (2019).

¹² Ikusi VIII. ERANSKINA.

6.2 GIZARTE ZERBITZUAK

Indarkeria

egoerak lehentasuneko edo larrialdiko jarduera bat eska dezake. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak, arau orokor gisa, ahalik eta azkarren eta lehentasunez artatzen dira:

Gizarte

Larrialdia

Emakume batek osasun-laguntza behar duten lesioak baditu edo lesio horien susmoa badago, nahiz eta lesio horiek ikusi ez, edo beraren osotasunerako edo tutoretza, zaintza edo jagoletzaren mende dauden adingabeentzat arriskua dagoela balioesten bada, Arreta Zerbitzuak berehala emango dio arreta (ez da beharrezkoa aurretiko hitzordua).

Biktimak lesio fisikoak, psikologikoak edo emozionalak dituenetan eta osasun-arreta behar badu, edo agerikoak ez izan arren lesioak daudela susmatzen bada, arreta eskatzen duen unean dagokion osasun-etxera joatea gomendatuko zaio. Aurretiazko baimena izanez gero, gizarte-zerbitzuak telefonoz harremanetan jarriko dira dagokion mediku-zerbitzuarekin, arretarako sarbidea koordinatzeko. Beharrezkoa bada, osasun-zentrora lagunduko zaio biktimari eta lesioen parte ofiziala izateak zer nolako garrantzia duen azalduko zaio.

Emakumearen edo bere tutoretzapeko edo zaintzako adingabeen segurtasuna edo osotasun fisikoa arriskuan dagoela baloratuz gero, SOS-Deiak (112) zerbitzuari edo Ertzaintzaren edo Udaltzaingoaren polizia-etxeari¹³ jakinaraziko zaio, biktima babesteko beharrezko kudeaketak (anbulantzia bat bidali, poliziaren presentzia, etab.) egiteko edo Gizarte Zerbitzura edo leku egokira joateko.

Biktimak salaketa jartzeko nahia erakusten badu, bide judiziala hasteko laguntza emango zaio. Unean uneko segurtasun indarrei deituko zaie, txandako pertsonalak harrera presta dezan. Biktimak salaketa Epaitegian jarri nahi badu zuzenean edo agerraldi judizialera eta/edo epaiketa azkarrera joan behar badu, eta inguruko inoren aurrez aurreko babesik ez badu, Doako Laguntza Juridikorako duen eskubidearen berri emango zaio. Lege horrek doako laguntza juridikorako eskubidearen aplikazio-eremu pertsonala eta eduki materiala arautzen ditu, hurrenez hurren. Hainbat arrazoi direla-eta laguntza hori ezin bada eman, telefonoz koordinatuko da Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin (BLZ), epaiketara bakarrik joan ez dadin.

Sexu-indarkeria berriki gertatu bada (azken 240 orduetan, 10 egunetan), gertuen dagoen ospitaleko larrialdi-zerbitzura lagunduko zaio biktimari, hala nahi izanez gero. Biktimari jakinarazi behar zaio, ahal duen neurrian, ez garbitzeko eta ez aldatzeko arropa. Aho bidezko erasoak gertatu badira, ez jateko eta ez edateko, balizko froga ez deuseztatzeko.

Osasun-sistemari abisatuko zaio dagokion prozedura aktiba dezaten eta medikua edo auzi-medikua (sistema judiziala) bertaratzeko beharrezko gestioak egin ditzaten. Biktimari uneoro eskainiko zaio osasun-zentroetara, polizia-bulegoetara edo bulego judizialetara edo beste auzialdi batzuetara joateko laguntza fisikoa eta emozionala. Laguntza hori gakoa da kaltetutako emakumeen, haurren eta nerabeen emozioei dagokienez babesa emateko.

Aldez aurretik, telefonoz koordinatzen da ospitaleko larrialdiekin, arreta-dispositiboa prestatzen aurrera egin dezaten, eta ospitaleak egingo ditu dagozkion kudeaketak auzitegi-medikua bertaratu dadin, azterketa medikoa egin eta laginak hartu ahal izateko. Nolanahi ere, egitateari buruz eskuragarri dauden datu guztiak ematen zaizkio auzitegi-medikuari.

Larrialdia udaleko oinarritzko gizarte-zerbitzuen ordutegitik kanpo sortzen bada (astelehenetik ostiralera 8: 00-15:00), arreta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Larrialdiak Koordinatzeko Zerbitzuarekin koordinatuko da,

¹³ Ikusi II. ERANSKINA.

eta horiek, larrialdiko arreta jaso ondoren, erreferentziako oinarritzko gizarte-zerbitzuetara bideratuko dute emakumea, zerbitzu horien ordutegian.

Urgentziazko ostatuaren kasuan, arriskua, egoera emozional eta fisikoa, adingabeen edo mendekoen presentzia, maskotak eta abar baloratuko dira.

Larrialdiko arreta-fasea amaitutakoan, espediente berri bat irekiko da, eta jardunean jarraituko du esku hartzeko prozesua amaitu arte. Biktima dagoeneko erabiltzailea bada, larrialdiko jarduketak bere espedientearen erregistratuko dira.

Lehentasunezkoa

Lehen arretan, beren eskubideen eta dauden baliabideen berri jasoko dute. Indarkeriatik irteteko prozesua planifikatzeko eta prestatzeko laguntza eta babesa eskainiko zaie, beren errealitateari eta behar espezifikoari arreta emanda, agertoki eta ondorio posibleak aurreikusita, horretarako denbora nahikoa emanda eta erabakiak hartzeko autonomia erraztuz.

- a) **Emakumeak ez du hitzez adierazten indarkeria-egoera** Indarkeria matxistaren biktima diren emakume batzuk oinarritzko gizarte-zerbitzuetara jotzen dute indarkeriarekin zerikusirik ez duten eskaerak planteatzeko. Gizarte-zerbitzuek antzeman dute indarkeria matxista pairatzen ari direla, baina ez dute zuzenean eta argi esaten.

Indarkeria matxistaren susmoa dagoen kasuetan, baina emakumeak hitzez adierazten ez duenean edo hala aitortzen ez duenean, emakumearen parte-hartzearekin diseinatuko den arreta pertsonalizatuko eta jarraipeneko planak laguntza psikologikora, ahalduz indibidualera eta kolektibora, detekzioa eta deribazioa bideratutako ekintzak jasoko ditu, besteak beste.

Erreferentziazko oinarritzko gizarte-zerbitzuetako profesional bat esleitu behar da, konfiantzazko lotura bat sortzeko, jarraitutasuna eta egonkortasuna emateko eta arreta-ibilbidearen koherentzia eta esku-hartzeen koordinazioa bermatzeko. Oinarritzko Gizarte Zerbitzua emakumearekin koordinatuko da aldez aurretik, egokituz jotzen diren baliabideetarako sarbidea errazteko eta ekintzak eraginkortasunez abian jartzeko.

Emakumearekin aldi berean behin elkarriketak eta telefono bidezko harremanak eginez egingo da jarraipena, bai eta bideratu den zerbitzuekin koordinatuta ere.

Biktimak indarkeria hitzez adierazten ez duenean eta, ondorioz, salaketarik aurkezten ez duenean, arrisku-balorazioan oinarrituta eta biktimaren eta/edo haren ingurunearen babesa ziurtatzeko, Gizarte Zerbitzuek beharrezkotzat jotzen dituzten presako neurriak eskatu ahal izango dizkiote epaitegiari, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriari buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 19.4 artikulua babesean. Eskaera horiek Fiskaltzaren bidez bideratuko dira, eta zerbitzu horiek bertara bideratuko dira, eskaera egin ahal izateko. Ertzaintzari ere jakinarazi ahal izango zaio, dagozkion babes-neurriak abian jar ditzan.

b) Eskari esplizitua: emakume biktimek indarkeria hitzez adierazten dutenean eta laguntza eskatzen dutenean, elkarriketa bat egingo da, harrera egiteko, entzuteko, pertsona horrek gizarte-zerbitzuetara zergatik jotzen duen jakiteko eta hasiera batean indarkeria-egoera, haren premiak eta gizarte-trebetasunak baloratzeko.

Lehenengo elkarriketaren helburua izango da biktimaren egoerari buruzko lehen hurbilketa bat egitea, haren premiei eta potentzialtasunei buruzkoa, bizikidetzaren nukleoari, lotura afektiboari eta laguntza-sareari, etxebizitzari, lan-egoerari, autonomia ekonomikoari eta abarri buruzkoa, bai eta jasandako indarkeria-motek, aurrekariei eta indarkeriaren testuinguruari buruzkoa ere.

Hori guztia, laguntza egokia eta pertsonalizatua emateko eta dauden baliabideei eta arazoak konpontzeko bide alternatiboei buruzko informazioa emateko, arreta integrala jasotzeko eskubidea kontuan hartuta, bai emakumearentzat, bai guraso-ahalaren edo zaintza edo jagoletzaren mende dauden adingabeentzat. Emakumeari gogoraraziko zaio oso garrantzitsua dela eskaintzen zaizkion baliabideak erabiltzea egoera gainditzeko, bereziki laguntza psikologikoko, orientazio juridikoko eta elkarte-mugimenduko programak.

Gizarte-zerbitzuen jarraipena duen esku-hartze bat adosten denean, diagnostiko sozial bat egitea eskaini ahal izango da, haien premiei aurre egiteko laguntza egokienetara bideratu ahal izateko.

Gerora aholkularitza juridikoko zerbitzuetan eman diezaioketen aholkularitza kualifikatuagoari kalterik egin gabe, gizarte-zerbitzuetatik informazioa eta aholkularitza emango diote, oinarritzko moduan, beren eskubideei buruz, beren tutoretzapean edo zaintzapean dituzten seme-alaben eta adingabeen eskubideei buruz, bai eta abiaraz daitezkeen izapide eta prozedura judizialei buruz ere: Ertzaintzan salatzeako eskubidea; babes-agindu bat eskatzeko aukera eta komenigarritasuna; banantze zibilerako oso behin-behineko neurriak eskatzea; legezko baldintzak betez gero, doako justizia lortzea, orientazio juridikoko zerbitzuen bidez, abokatutza-elkargoen bidez, eta 35/1995 Legean jasotako laguntzak Biktimari Laguntzeko Zerbitzuen bidez eskatzeko aukerari buruz.

Erreferentziatzko oinarritzko gizarte-zerbitzuetako profesionala esleituiko zaio, arreta-ibilbidearen jarraitutasuna, egonkortasuna eta koherentzia eta esku-hartzeen koordinazioa bermatzeko. Gizarte-zerbitzuetako profesionalak kasuaren jarraipena egingo du prozesu osoan zehar, biktimei arreta emateko zerbitzu eta programekin koordinatuta, emakumeari eta haren seme-alabei laguntzeko.

Hizkuntza-oztopoak daudenean, telefono bidezko aldi bereko itzulpen-zerbitzua (DUALIA) erabiliko da, eta hizkuntza-estaldura zabala emango zaie behar duten atzeritarrei.

Biktimek seme-alaba adingabeak ardurapean dituztenean, ezinbestekoa da emakumeekin eta adingabeekin egiten den esku-hartzea koordinatzea, indarkeria matxistako egoeren biktima izan zein erasoen biktima izan, esku-hartze plan koordinatuak diseinatu behar dira. Haien interes gorena kontuan hartuta, haiekin esku hartu ahal izango da, aitaren adostasunik gabe ere, betiere amaren edo haien aurkako indarkeria-egoeren egiaztagiria badago, justizia edo administrazio-agintaritza eskudunak emana (bikotea hausteko salaketarik edo prozedura zibilik ez badago ere). Kasu horietan, nahikoa izango da aitari alde aurretik jakinaraztea.

Aldaketa-prozesu orok baditu fase eta erritmo batzuk, eta ona da horiek ebaluatzea, emakumea bizitzen ari den unerako egokiak diren ekintza-proposamenak egiteko:

- Ez du salatu nahi

Biktimak gertaerak salatu nahi ez baditu eta babes-agindurik eskatu nahi ez badu, salaketaren ondorioak azalduko zaizkio, positiboak eta negatiboak, salaketa jartzera behartu gabe.

Dauden doako baliabideen berri emango da, eta egoera bakoitzerako egokientzat jotzen direnentzako sarbidea kudeatu eta koordinatuko da. Kontuan izan behar da gizarte-langileak beharrezkotzat jotzen dituen presako neurriak eskatu ahal izango dizkiola epaitegiari, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 19.4 artikuluen babesean. Eskaera horiek Fiskaltzaren bidez bideratuko dira.

Biktimarekin ahaidetasun-harreman hauetakoren bat duten pertsonak ere eska dezakete babes-agindua: ezkontideak edo biktimarekin afektibitate-harreman antzekoa duen edo izan duen pertsonak, ezkontidearen

edo bizikidearen seme-alabek, tutoretzapekoek eta begi-niniek, aurrekoek edo biktimarekin bizi diren pertsonak edo guraso-ahalaren, tutoretzaren, kuradoretzaren, harreraren edo izatezko zaintzaren mende daudenek, betiere eskaera eragin duen egitatearekin zerikusirik ez badute eta horretarako gaitasuna badute.

- Salaketa jarri nahi du

Emakumearekin batera aztertuko da bere bizitzako eremu desberdinen egoera: etxebizitza, gizarte-harremanak, diru-sarrerak, enplegua... salaketa jarri ondoren egon daitezkeen egoerak, bai eta egon daitezkeen alternatibak eta laguntzak ere.

Salaketa jarri aurretik eta lehentasunez, emakumeentzako hitzordu bat kudeatzeko aukera emango da, Aholkularitza Juridikoarekin edo Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin (BLZ).

Ahal dela, salaketa Ertzaintzan jarriko da, eta ez da zuzenean epaitegira bideratuko, prozedura luza ez dadin edo epaitegira Ertzaintzaren laguntzarik gabe lehen aldiz sar ez dadin. Salaketa jartzeko modua zehazteko, Gizarte Zerbitzuak aldeztu aurretik harremanetan jartzen da Bergarako ertzain-etxearekin, dagokion arreta errazago eskuratzeko.

Garrantzitsua da gogoraraztea salaketa ofiziozko txanda espezializatuko abokatuaren laguntza presentzialarekin jarri beharko dela. Horretarako, Ertzaintzak ertzain-etxean duen presentzia komunikatu eta koordinatu beharko du.

Garrantzitsua da gogoraraztea salaketa ofiziozko txanda espezializatuko abokatuaren laguntza presentzialarekin jarri beharko dela. Horretarako, Ertzaintzak ertzain-etxean duen presentzia komunikatu eta koordinatu beharko du. Gainera, OGZko erreferentziatzeko gizarte-langilearen edo Gizarte Larrialdietako koordinazio-zerbitzuaren gizarte-laguntza izatea komeni da.

- Erasotzailearekiko bizikidetza eten nahi du

Bere bizilekuari eusten badiu, erasotzailearekin bizi gabe, edo ohiko etxebizitza uzten badu, baina ez badu harrera-pisu batera bideratu behar: gizarte-langileak kasuaren jarraipena egingo du, eta bere premiak betetzeko behar dituen baliabideak eskaini eta kudeatuko dizkio.

Emakumeak urgentziatzeko bizitokia behar badu, Ertzaintzari deituko zaio biktima ertzain-etxetik ertzain-etxera eramateko, Ertzaintzaren beraren instrukzioaren arabera.

Emakumeak nahiago badu ostatura jo bere gizarte- edo familia-sarearekin, hark izan ditzakeen arriskuen berri eman behar zaio; adibidez, poliziaren babesik ez izatea epaiketa azkarra egin eta/edo urruntze-agindu bat eman arte.

Nolanahi ere, Gizarte Zerbitzuek ziurtatuko dute emakumeak baliabide hori estalita duela, eta senide edo lagunen etxebizitza batera joatea erabakitzen badu, horren berri eman eta Udaltzaingoarekin koordinatuko du, zaintza-lanak egin ditzan urruntze-agindua izapidetzen den bitartean.

- Erasotzailearekin bizitzen jarraitzen du

Gizarte-langileak arreta pertsonalizatuko plan bat diseinatuko du, emakumearen parte-hartzearekin. Behar diren baliabideak eskaini, kudeatu eta koordinatuko ditu (juridikoak, psikologikoak, ekonomikoak, soziohezkuntzakoak, enpleguak, etab.), emakumeari laguntzeko eta haren premiak asetzeko.

Egoeraren jarraipena egingo da emakumearekin aurrez aurreko eta telefono bidezko elkarrizketak eginez, bai

eta premiak estaltzeko bideratu diren baliabideekin koordinatuz ere. Bizikidetza etetea erabakiz gero, une oro jakinaraziko zaio laguntza eta baliabideak eskura dituela.

OFIZIOZKO KOMUNIKAZIOA

Prozedura Kriminalaren Legearen (259. artikulua eta hurrengoak) arabera, profesionalek ofizioz eta lehenbailehen jakinarazi beharko dizkiete Poliziari, Epaitegiari edo Fiskaltzari delitua izan daitezkeen edo biktimentzat edo hirugarren pertsonentzat arrisku larria edo berehalakoa zein lesio larriak eragin ditzaketen emakume helduen aurkako indarkeria matxista egoerak, berehalako babes-neurriak har ditzaten. Hori guztia, indarkeria matxistaren arretarako eta babeserako prestazio publikoen onuradun izateko legezko ekintzarik ez egiteko biktimak duen eskubidea errespetatuz¹⁴.

Haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko 2021eko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera (15. artikulua), haur edo nerabe adingabeen aurkako indarkeria-egoeren edozein zantzu hautematen dituzten eragile guztiek Poliziari, Epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko diote eta, babesgabetasun-egoeraren bat hautematen badute, baita haurren arretan espezializatutako Gizarte Zerbitzuei ere. Dena dela, biktimei ofizioz hasten diren prozeduren berri eman behar zaie.

6.3 ERTZAINNTZA

Ertzaintzak Bergarako biztanleei arreta eta erantzuna ematen die, udalerrri bereko Herritarrei Arreta Emateko Bulegotik. Ertzaintzaren funtsezko eginkizuna da pertsonak eta ondasunak babestea, haien eskubideak eta askatasunak askatasunez baliatzen direla bermatzea eta herritarren segurtasuna zaintzea EAEko lurralde osoan. Horretarako, ordenamendu juridikoak segurtasun-kidegoei esleitzen dizkien eginkizunak betetzen ditu, eta arreta ematen du EAEko lurralde osoan dauden ertzain-etxe eta bulegoekin.

Prebentzio-jarduerak: Prebentzio-jarduerak, lehenik eta behin, emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideak gertatzea eragozten duten detekzio- eta prebentzio-jarduerak egitera bideratu behar dira.

Delitu izan daitezkeen emakumeen aurkako indarkeria matxistako egoera baten presentziaren edo susmoaren aurrean, EAEko polizia-kidegoetako langileek prozedura eta jarraibide orokor hauei jarraituko diete, eta bereizi egingo dituzte larrialdi-egoerak (berehalako esku-hartzea behar den kasuetan) eta premiiazko arreta behar ez duten egoerak (arreta arrunta).

Larrialdia

Euskadiko Poliziaren zerbitzuetarako sarbidea sarritan telefono bidezkoa da, nahiz eta Udaltzaingoa edo Ertzaintza aurrez aurre ere egin daitezkeen. Biktimak berak, familiako kideren batek, bere sare sozialeko pertsonaren batek edo beste zerbitzuetako eta sistemetako profesionalek kontakta dezake zuzenean.

Lehenengo kontaktua dei bidezkoa denean, eta artatzen duten pertsonak delitua izan daitezkeen indarkeria matxistaren gertakari bat dela hautematen dutenean, egiaztatu eta dokumentatu egingo da. Une horretan deia egiten duen pertsonari honi buruzko jarraibideak emango zaizkio: egon daitezkeen objektu arriskutsuak; adingabeak (edo menpekotasunen bat eta/edo desgaitasunen bat duten beste pertsona batzuk) egongo balira, babesteko jarduketak; informatu duen pertsona patruilarekin zein tokitan elkartzeko den.

Intzidentziaren lehenengo komunikazioa jasotzen duen polizia-kidegoak aurkeztutako pertsona EBAn (etxeko indarkeria eta genero-indarkeria delituengatik txostenen kudeaketa partekatutako sistema) bilduta dagoena kontuan izanda artatuko du, azkeneko arrisku-balorazioa erreferentzia gisa hartzeko.

¹⁴ Istanbulgo Hitzarmenaren 18. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzaren aldeko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 50.5. artikulua

Biktimak hala eskatzen badu edo beste pertsona edo erakunde batzuen salaketa baldin badago, polizia biktimaren etxera edo biktima dagoen tokira joango da eta beharrezkoa den denbora guztian geratuko da **jazoera neutralizatzeko eta biktimari edo biktimei laguntzeko (arreta berezia jarri behar da haur eta nerabeengan).**

Biktimak osasun-arreta behar duten lesio fisikoak, psikologikoak edo emozionalak baditu, edo ikusi ez arren susmoak baditugu, telefonoz harremanetan jarriko gara **dagokion larrialdi-zerbitzuarekin edo osasun-larrialdiarekin**, dagokion arreta koordinatzeko. Abisua emango zaie prest egon daitezen eta medikua edo auzi-medikua bertaratzeko beharrezko gestioak egin ditzaten. Emakumeari lesioen agiri ofiziala eskatzeak duen garrantzia nabarmenduko zaio, salaketa jartzen badu aurkeztu ahal izateko.

Sexu-indarkeria egin berria (azken 240 orduetan gertatua) bada, eta biktimak arriskua duenean, hurbilen dagoen ospitaleko larrialdi-zerbitzura lagunduko da. Arriskurik egon ezean, laguntza psikosoziala eskainiko zaio, herriko gizarte-zerbitzuekin koordinatuta kudeatuko da. Edonola ere, Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuari (Mendaroko Ospitaleko Larrialdi Ginekologikoak) jakinaraziko zaio prozedura aktibatzeke eta auzi-medikua etor dadin beharrezko kudeaketak egin ditzaten.

Biktimari jakinaraziko zaio ez dituela eskuak garbitu eta arropak aldatu behar, ezta ezer jan edo edan ere aho-bidezko erasoak egon badira. Polizia-taldea aurretiaz koordinatuko da ospitalean hartzeko, bai eta ospitalean medikua edo auzi-medikua egon dadin eskatzeko ere, mediku-azterketa egin eta laginak hartu ahal izateko. Biktimari ez zaio aitorpena hartuko osasun-langileek azterketa egin arte eta bere behar pertsonalei erantzun arte. Ustezko erasotzailea bide judizialek zigortzeko salaketa jartzeak duen garrantziaren berri emango zaio.

Biktimaren zaintzapean adingabeak edo menpekotasunen bat duten pertsonak badaude: biktimak seme-alaba adingabeak edo menpekotasunen bat duten pertsonak baditu ondoan, inguruko konfiantzazko pertsonak identifikatzen saiatuko da (biktimak hautatutakoak) behin-behinean menpekotasuna duten pertsonen zaintza bere gain har dezan, amaren aitortzak eta kontakizunak bizitzeak ekar dezakeen bigarren biktimizazioa ekiditeko. Zaurgarritasun-egoera detektatuz gero, dagozkien gizarte-zerbitzuei jakinaraztea baloratuko da, beren arretarako eta babeserako neurri proposak har ditzaten.

Indarkeria matxista jasandako haurrak eta nerabeak gehitu beharko dira atestatuan; izan ere, indarkeria horren biktima gisa onartuta daude legez; beraz, trataera espezifikoa, indibidualizatua eta independentea jasotzeko eskubidea dute.

Gizarte zerbitzuen lana balioetsiko da eta biktimari Elgoibarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jartzeko aukera eskainiko zaio edo, zerbitzu horren ordutegi arruntetik kanpo bada, Larrialdietako Gizarte Zerbitzuarekin jartzeko, profesionalak bertara daitezen, lagun diezaioten, emozioen atxikipenean lagun diezaioten eta, behar balitz, berehalako harrera-baliabidera sartzea kudea dezaten. Biktimak ezetza adierazi ezean, ahalik eta lasterren jakinaraziko zaie aipatutako zerbitzuei.

Biktimak segurtasuna arriskuan ikusten badu edo hori eskatzen badu, bera eta bere tutoretza edo zaintza pean dauden adingabeak emakumeak proposatutako beste etxe edo toki batera eramango dira (senideen etxea, lagunena, etab.). Biktimaren segurtasuna arriskuan dagoenean, polizia-agenteeek bere eta bere zaintzan dauden seme-alaba adingabeen edo menpekotasuna duten beste pertsona batzuen harrera-egoitzarainoko lekualdatzea kudeatuko dute, beren segurtasuna bermatuta. Halaber, beharrezkoa baldin bada, biktimari etxera lagunduko zaio arropa eta beharrezko beste objektuak hartzeko.

Biktima larrialdietako mediku-zerbitzura, gizarte-zerbitzuetara, etxera edo beste norabait eraman behar bada, ahal den heinean, bereizgarririk gabeko ibilgailu ofizialean eramango da.

Biktima larrialdi-zerbitzu medikora, emakume- eta berdintasun-zerbitzura, gizarte-zerbitzuetara, etxera eta abarretara eraman behar den kasuetan, ahal den neurrian, bereizgarririk gabeko ibilgailu ofizial baten bidez egingo da lekualdaketa hori. Bai biktimari arreta ematean, bai biktima lekualdatzen denean, polizia-taldean gutxienez agente batek parte hartzeko ahalegina egingo da.

Ikerketa eta atestatua egitea

Poliziak dakizkien eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarekin erlazionatutako arau-hausteak diren gertakari guztiek atestatua irekitzea ekarriko dute. Bikotekideak edo bikotekide ohiak edo familiakoren batek eragindako indarkeria matxistaren kasuetan gainera, EBA espedienteak irekiko da.

Ikerketetan eta prozesu osoan zehar bi giltzarri daude: biktimaren behar medikoak eta psiko-sozialak, eta biktimak eta lekukoek emandako informazio adierazgarria eta frogak biltzea. Biktimaren eta bere seme-alaben edo familiako kideen segurtasuna bermatzeko berehalako kudeaketak egiteko eta, behar balitz, erasotzailea atxilotzeko aukera ematen duten datuei buruz ere galdetuko da.

Garrantzitsua da gogoan izatea indarkeria matxista jasandako haur eta nerabeak legez daudela biktimatzat hartuta; hortaz, atestatuan txertatu behar dira bere seme-alabak izan ala ez eta berarekin bizi ala ez biktimaren zaintza peko adingabeak badira. Haurren jokabidearen inguruko informazioa jaso behar du atestatuak, baita indarkeriaren biktima/testigu izan diren argitzen duen informazioa ere. Izan ere, larriagarria izateaz gain, erabakigarria izan daiteke babesa, eta haur eta nerabeentzako gizarte-zerbitzu espezializatuen arreta jasotzea.

Desgaitasuna duten biktimen atestatuko ikerketa eta salaketa egiterakoan, beharrezkoa da indarkeria pasiboa ere kontuan izatea, esaterako, abandonu fisikoak, gehiegizko medikamentuak edo medikamentu desegokiak ematea eta abandonu emozionala.

Ahalik eta azkarren eta zehatzen egingo dira arau-haustea egon dela eta egilea erantzulea dela egiaztatzeko beharrezkoak diren uneko egiaztaketak eta ikerketa: begietako ikuskapena, lekukoak, biktimari argazkiak ateratzea bere baimenarekin, etab. Biktimari ikertutako gertakariekin erlazionaturiko objektuak eta elementuak eramatea kasua argitzeko garrantzitsua dela informatuko zaio.

Atestatuan epaitegiari jakinarazteko beharrezko informazio guztia erantsiko da: aurrekariak, begizko ikuskapenen diligentziak, babes-aginduen eskaera, egoeraren arriskuaren balorazioaren diligentzia, aitorpenak, etab.

Arreta psikosoziala balioetsiko da eta biktimari Elgoibarko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jartzeko aukera eskainiko zaio edo, zerbitzu horren ordutegi arruntetik kanpo bada, Larrialdietako Gizarte Zerbitzuekin jartzeko, profesionalak bertara daitezten, lagun diezaioten, emozioen atxikipenean lagun diezaioten eta, behar balitz, berehalako harrera-baliabidera sartzea kudea dezaten. **Biktimak ezetza adierazi ezean, ahalik eta lasterren jakinaraziko zaie aipatutako zerbitzuei.**

Ikerketaren eta atestatua egin ondoren, baita biktima adindunak salaketa jarri gabe ere, polizia-agenteei Prozedura Kriminalaren Legearen (259 artikulua eta hurrengoak) arabera, Epaitegiari edo Fiskaltzari **ofizioz eman beharko diote** dakizkiten eta delitu izan daitezkeen edo biktimentzat edo hirurgarren pertsonentzat arrisku larria edo lesio larriak ekar ditzaketen emakumeen aurkako indarkeria matxistaren egoeren berri. Haur eta nerabeei eragindako indarkeria-egoera baten zantzuak ikusten dituztenean, Epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko diote eta balizko babesgabetze kasu bat identifikatuz gero, gizarte-zerbitzuei.

Dena dela, biktimei ofizioz hasten diren prozeduren berri eman behar zaie. Biktimak salaketa jartzeko lege-aholkularitza jasotzeko nahia adierazten badu, dagokion Abokatu Elkargoaren Ofiziozko Txanda espezializatua aktibatzeko beharrezko kudeaketak egingo dira polizia-bulegoetatik eta abokatuak polizia-etxera iristeko behar duen gutxi gorabeherako denboraren berri emango zaio. Abokatuaren laguntza aurrez aurrekoa izango da eta polizia-etxean izango da¹⁵. Abokatuak honako hauek eskainiko dizkio biktimari: aurrez aurreko aholkularitza, abokatuaren laguntza salaketa egiten den bitartean, eskaeran eta, hala badagokio, babes-agindua hartzeko agerraldian, baita epaiketa azkarrean ere.

Biktima artatzen duten Gizarte Zerbitzuetako operadoreak Ertzaintzarekin lankidetzan arituko dira, eta informazioa partekatuko dute ez-zilegi penala ikertzeari eta argitzeari buruz. Berariaz baimendu ez duen informazioa partekatu behar izanez gero, komeni da jakinaraziko zaiona eta izan ditzakeen ondorioak jakinaraztea, harekiko lotura babesteko.

Salaketa jasotzea

Lehenik, ahal den neurrian, aurkeztutakoari emakumezko agente batek artatzea eskainiko zaio eta konfiantzazko pertsona batek laguntzeko duen eskubidearen berri emango zaio. Adingabeak beti egon beharko du bere ardura hartuko duen eta elkarriketan lagunduko dion heldu batekin, ahal dela, berak aukeratua. Esku-hartzean parte hartuko duen agenteak ikerketa-objektuarekiko adingabearen eta ardurazko helduaren artean interes-gatazkarik ez dagoela zaindu behar du, eta gatazkarik hautemanenez gero, banatu egin beharko ditu eta adingabearen eskubideak bermatuko dituen hirugarren pertsona edo erakunde bat bilatu.

Salaketa jartzeko prozeduraren berri hizkuntza ulergarrian emango zaio biktimari, alderdi hauek zehaztuta: konfidentziasunaren mugak; salaketaren edukira nor izango duen sarbidea; elkarriketaren arauak finkatzea; horren inguruko espektatiba irrealak saihestea.

Salaketa hau kontuan izanda bilduko da:

- Salaketa jasotzerakoan arreta berezia jarriko zaio biktimaren egoera emozionalari, giro segurua sortzen ahalegindu beharko da, toki eroso eta pribatuan, inork ez eteteko eta biktimaren pribatutasuna gordetzeko.
- Beharrezko neurri guztiak hartuko dira biktimaren eta familiaren edo haiekin dauden pertsonen eta erasotzailearen eta bere familiaren edo berarekin dauden pertsonen artean kontakturik ez dagoela bermatzeko.
- Aitorpena behar den guztietan etengo da eta, are, atzeratu ere egingo da, biktima aitorpena egiteko egoeran ez badago. Salaketa amaitu ondoren, biktimari kopia bat emango zaio.
- Haurren jokabidearen inguruko informazioa jaso behar da. Gakoa izan daiteke garaiz hautemateko eta erabakigarria izan daiteke babesa eta haur eta nerabeentzako gizarte-zerbitzu espezializatuen arreta jaso dezaten. Kontuan izatekoa da emakumeen aurkako indarkeria dagoen testuinguruetan zuzeneko eraso fisikoak, hainbat tratatu txar mota eta/edo sexu-abusuak pairatzen aritu daitezkeela; izan ere, ingurune horietan biktimak ezkutuan egon daitezke eta ikusezinak izan.
- Horietan lagunduko duten itzulpen-, zeinu-hizkuntzaren interpretazio- edo beste zerbitzu batzuetara joko da; betiere, zailtasun kognitiboak edo komunikaziorako beste oztopo batzuk dituzten biktimak informatu eta onarpena eman ostean.

¹⁵ Egoera ezohikoetan, biktimak mugikortasun-arazoak dituenean eta bere egoitzatik mugitu ezin denean, Ofiziozko Txandako abokatuaren aholkularitza telefono bidezkoa izan daiteke.

- Desgaitasuna duten biktimekin kontuan izango dira indarkeria pasibo motak, esaterako, gertatzen ari litezkeen abandonu fisikoa, gehiegizko medikazioa edo medikazio desegokia eta abandonu emozionala.
- Ikerketa egingo da biktima migratuekin edo emakumeentzat kaltegarriak izan daitezkeen kultura-komunitateetako biktimekin, emakumeen genitalen mutilazioaren balizko kasuei eta nahitaezko ezkontzei buruz, gizarte- eta osasun-zerbitzuekin.

Ikerketaren arduradunak salaketa eta babes-agindua eta irekitako diligentziak (bikotekideak, bikotekide ohiak edo familiako beste kideren batek eragindako indarkeria matxistaren kasuen arriskua balioestea) Epaitegian ahalik eta lastarren tramitatzeko ardura izango du, eta diligentzia bukatu eta 24 ordu baino gutxiagoan tramitatuko da.

Ertzaintzak izango du epaiketa azkarretarako hitzorduetarako agenda judiziala kudeatzeko ardura.

Arriskuaren balorazioa eta babes-neurriak

Bikotekideak, bikotekide ohiak edo familiako beste gizonen batek eragindako indarkeria matxista kasuetan (EI/GIri dagozkien prozeduretan), EBA espedientea irekita eta deklarazioa hartzean biktimen hasierako arriskua baloratzeko ahalik eta informazio gehien bilduko da (emakumea, eta baleude, indarkeriak eragin dien emakumearen zaintza pean dauden adingabeak edo mendekotasuna duten beste pertsona batzuk). Ondoren, Epaitegiari bidaliko zaio.

Egindako arriskuaren balorazioaren emaitzaren arabera komenigarria bada, biktima babesteko neurri zehatzak hartuko dira.

Arriskuaren balorazioa prozesu iraunkorra da eta arrisku-adierazle berriak identifikatzeko aukera ematen duen informazioa dagoenean edo aurretik kontuan hartutako batzuk baztertu daitezkeenean eguneratuko da. Horregatik, arrisku maila biktimak une jakin batean duen egoeraren irudia da.

Egun, Ertzaintzak lau arrisku maila ditu ezarrita:

- Oinarrizko arrisku maila: indarkeriazko jazoerak gertatzeko aukera txikia da.
- Arrisku maila neurritsua: indarkeriazko jazoerak gertatzeko aukera dago.
- Arrisku maila altua: indarkeriazko jazoerak gertatzeko aukera handia da.
- Arrisku maila berezia: indarkeriazko jazoerak gertatzeko aukera oso handia da.

Arrisku mailaren arabera, Ertzaintzak hainbat babes-neurri ezartzen ditu, besteak beste:

- Erasotzailearen zaintza eta jarraipena egitea, eta modu eraginkor eta operatiboan egin badaiteke, organo judizialaren zerbitzura dauden hurbiletik hautemateko sistemak erabiliko dira erasotzaileari ezartzen zaizkion urruntze-neurriak behar bezala betetzen direla bermatzeko.
- Errutinen inguruko prebentzio-jarduerak, telefono bidezko egiaztapenak eta ausazko bisitak, lekualdatzeak, babeserako aldizkako laguntza eta operatiboak.
- Biktimen babes etengabea. Halaber, etxean tratatu txarrak jasan dituzten biktima guztiei babes-neurri hauek eskainiko zaizkie, haiek errefusatu ezean:
- Autobabeserako neurriei buruzko prestakuntza eta materiala.

- Eguneke 24 orduetan biktimaren eta polizia-zerbitzuen arteko komunikazio zuzena eta berehalakoa ahalbidetzen duten gailuak.
- EI/GI taldeak, eskumenekoak dituen sexu-erasoen kasuan, biktimak jasandako erasoak aztertu ondoren, beste eraso bat gerta daitekeela pentsaraz dezaketen inguruabarrak edo elementuak daudenean, eta lortu nahi den babes-helburuarekiko neurria proportzionala denean, biktimari telefono bat emateko aukera eskainiko zaio, polizia-unitateekin zuzeneko lotura gisa, larrialdiren bat gertatuz gero

Garrantzitsua da biktimei jakinaraztea poliziaren esku-hartzeak muga batzuk dituela eta biktimaren babes orokorrerako estrategian Udaleko Berdintasun Sailak eta gizarte-zerbitzuek rol garrantzitsua dutela beren ongizatearen alderdiei arreta jartzeko eta familia- eta pertsona- errekupeziari dagokionean.

Epaitegiek ebazpen judizialak Poliziari jakinaraziko dizkio inputatuaren prozesu-egoera kontuan hartu ahal izateko, baita kautelazko neurrien irismenaren eta indarraldiaren berri eman ere.

Poliziak BLZrekin kolaboratuko du Penak Kudeatzeko Euskadiko Zerbitzuak kartzelatik ateratzeari buruzko informazioa helarazteko garaian Poliziak lokalizatu ezin dituen biktimak topatzeko.

“Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren espedienteak” dokumentuan jasotzen diren babes-neurriak eraginkorrak izateko, biktimaren eta erasotzaileen argazkiak atera ahal izango dira. Horretarako, biktimari “Datu pertsonalen erabilera baimentzeko akta” emango zaio sinatzeko, Ertzaintzak eta Udaltzaingoak soilik erabiltzeko baimena eman dezan. Biktimaren baimena izan ondoren, biktimaren eta erasotzailearen argazki eguneratuak eskatuko zaizkio. Espedientean dagoen poliziaren fitxa biktimaren eta erasotzaileen irudiekin eta oinarritzko datuekin inprimatu ahal izango da, eta informazio osagarria gehitu; maiz egoten diren lekuak, lan-jarduera, aktibo dauden poliziaren neurriak, etab.

Informazioa eta beste zerbitzu batzuetara bideratzea

Idatziz helaraziko zaio biktimari bere eta bere zaintza pean dauden adingabeen eskubideen berri. Indarkeriak beren bizitzetan duen ondorioez eta administrazio publikoek berenganako dituzten babes-betebeharrez informatuko zaie.

EAEn eskura dituzten baliabideen, zerbitzuen eta prestazioen berri emango zaie eta, bereziki, beren udalerrikoen berri: ekonomikoak, psikologikoak, bizilekuaren ingurukoak eta lege-aholkularitzakoak. Zerbitzu horietarako telefonoak ere emango zaizkie.

Administrazio-egoera irregularrean dauden atzerriko emakumeei jakinaraziko zaie salaketa jartzerakoan ez dela era irregularrean egoteagatik prozedura zigortzailerik hasiko, edo, prozedura hasi baino lehen hasita balego, bertan behera utziko dela. Halaber, epaia absoluziozkoa bada, zehapen-prozedura administratiboa hasiko dela jakinaraziko zaie.

Hala, era ulergarrian jakinaraziko zaie jasoko diren datuen inguruan, hau da, zertarako jasoko diren, nola gordeko diren, eta datu horiek behar bezala erabiltzeko erantzukizuna duen zerbitzua edo pertsona nor den. Datuak jakinarazteak zer onura dakartzan informatuko zaie eta ez egiteak zer ondorio izan ditzakeen, baita zuzentzeko eta bertan behera uzteko duten eskubideak ere. Gainera, datuak konfidentzialak izango direla eta datuak jasotzeko xedearekin lotura dutenek soilik erabiliko dituztela jakinaraziko zaie.

Ahal dela, informazio guztia idatziz emango zaio, formatu propioa duten material dibulgatzaileen bidez edo jada badauden esku-orrien bidez.

6.4 UDALTZAINGOA

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sisteman, Eusko Jaurlaritzan segurtasun publikoaren eskumena duen sailak eta udalerriek Ertzaintzaren eta udaltzaingoen jarduera koordinatua eta bateratua bultzatzen dute, beren eskumen-eremuan sortzen diren arazoei modu eraginkorrangoan aurre egiteko, bakoitzak bere eskumenen barruan.

Premiazko jarduketa, tokian bertan

Biktimak hala eskatzen badu edo beste pertsona edo erakunde batzuen salaketa baldin badago, polizia biktimaren etxera edo biktima dagoen tokira joango da eta beharrezkoa den denbora guztian geratuko da jazoera neutralizatzeko eta biktimari edo biktimei laguntzeko.

Adingabeen presentziari **arreta berezia jarri behar zaio, haurren jokabidea bildu behar da, gakoa izan daiteke garaiz hautemateko eta erabakigarria izan daiteke babesa eta haur eta nerabeentzako gizarte-zerbitzu espezializatuen arreta jaso dezaten**. Kontuan izatekoa da emakumeen aurkako indarkeria dagoen testuinguruetan zuzeneko eraso fisikoak, hainbat tratu txar mota psikologiko, emozional eta/edo sexu-abusuak pairatzen aritu daitezkeela; izan ere, ingurune horietan biktimak ezkutuan egon daitezke eta ikusezinak izan.

Ahalik eta informazio gehien bilduko da biktimen hasierako arriskua baloratzeko (emakumea, eta baleude, indarkeriak eragin dien emakumearen zaintzan dauden adingabeak edo mendekotasuna duten beste pertsona batzuk), Ertzaintzari jakinaraziko dio eta iritsi arte emakumea eta bere tutoretzan edo zaintzan dauden seme-alabak artatzeaz arduratuko da, beharrezkoa izanez gero erasotzailea atxilotuko du eta atestatua osatzen lagunduko duen informazio guztia jasoko du. Esku-hartze horren ostean, agerraldiaren akta egingo da Ertzaintzaren atestatuan sartzeko.

Atxilotuz gero, Udaltzaingoa arduratuko da atxilotua Bergarako ertzain-etxera eramateaz. Prozedura horren bidez, atxilotua instruktorearen esku jarriko da, eta udaltzainek gertaerekin lotutako agerraldiak egin ahal izango dituzte. Esku-hartze horren ondoren, agerraldi-akta bat egingo da, Ertzaintzak egingo duen atestatuan sartzeko.

Biktimak osasun-arreta behar duten lesio fisikoak, psikologikoak edo emozionalak baditu, edo ikusi ez arren susmoak badaude, zerbitzuarekin telefonoz jarriko da harremanetan dagokion mediku-zerbitzuarekin, dagokion arretarako sarbidea koordinatzeko. Abisua emango zaie prest egon daitezen eta medikua edo auzi-medikua bertaratzeko beharrezko gestioak egin ditzaten. Emakumeari lesioen agiri ofiziala eskatzeak duen garrantzia nabarmenduko zaio, salaketa jartzen badu aurkeztu ahal izateko.

Berriki gertatutako sexu-indarkeria bada (azken 240 orduetan gertatua), biktima gertuen dagoen ospitaleko larrialdi-zerbitzura eramango da (Debagoienea Ospitaleko Ginekologia Larrialdiak). Polizia-taldea aurretiaz koordinatuko da ospitalean hartzeko, bai eta ospitalean medikua edo auzi-medikua egon dadin eskatzeko ere, mediku-azterketa egin eta laginak hartu ahal izateko. Nolanahi ere, auzi-medikuari gertakariaren inguruan dauden datu guztiak emango dizkiogu. Biktimari jakinaraziko zaio ez dituela eskuak garbitu eta arropak aldatu behar, ezta ezer jan edo edan ere aho-bidezko erasoak egon badira.

Arreta psikosoziala balioetsiko da eta biktimari gizarte-zerbitzuekin harremanetan jartzeko aukera eskainiko zaio edo, zerbitzu horren ordutegi arruntetik kanpo bada, GLFZ Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuarekin¹⁶ jartzeko, profesionalak bertara daitezen, lagun diezaioten, emozioen atxikipenean lagun diezaioten eta, behar balitz, berehalako harrera-baliabidera sartzea kudea dezaten. Biktimak ezetza adierazi

¹⁶ Ikusi I. eta II. ERANSKINAK.

ezean, ahalik eta lasterren jakinaraziko zaie aipatutako zerbitzuei.

Emakumearen tutoretzan edo zaintzan dauden eta indarkeria zuzenean, lekuko edo bizikide direlako pairatzen duten adingabeak daudenean, biktimatzat hartzen ditu legeak; beraz, arreta eta babes egokia izan behar dute. Emakumea adingabeen zaintzaz arduratu ezin den unerako biktimak esandako pertsoneri edo senideei eskatuko zaie laguntza. Hori posible ez bada, gizarte-zerbitzuekin jarriko dira harremanetan prozesu osoan zehar laguntzeko.

Indarkeria matxista jasandako **haurrak eta nerabeak gehitu beharko dira atestatuan**; izan ere, indarkeria horren biktima gisa onartuta daude legeak; beraz, trataera espezifikoak, indibidualizatua eta independentea jasotzeko eskubidea dute.

Aurrez aurreko arreta polizia-kidegoaren etxean

Biktimak osasun-arreta behar duten lesio fisikoak, psikologikoak edo emozionalak baditu, edo ikusi ez arren susmoak badaude, aurreko atalean adierazi den moduan jardun beharko da, dagokion arreta osasun-sistemeekin koordinatuta.

Biktimak osasun-laguntzarik behar ez duten lesioak baditu, bere eskubideen berri idatziz emango zaio, bai eta laguntzeko baliabideen berri ere: baliabide ekonomikoak, psikologikoak, etxebizitzarenak eta lege-aholkularitza. Zerbitzu horien telefono-zenbakiak emango zaizkio. Informazio guztia idatziz emango zaio, material dibulgatzaileen bidez edo esku-orrien bidez.

Bi kasuetan kasuaren inguruko ahalik eta informazio gehien bilduko da ahalik eta atestatu osoena eta zehatzena egiteko. Gogorarazi beharrekoa da indarkeria-testuinguruan haur eta nerabeak bizi diren ikertu behar dela; izan ere, erabakigarria da garaiz hautemateko eta biktima gisa behar dituzten babes eta arreta espezializatuak emateko.

Salaketa jartzeko prozeduraren berri hizkuntza ulergarrian emango zaio biktimari, alderdi hauek zehaztuta: konfidentzialtasunaren mugak; salaketaren edukira nor izango duen sarbidea; elkarrizketaren arauak finkatzea; horren inguruko espektatiba irrealak saihestea. Babes-agindua eskatzeko aukerari buruzko informazioa ere emango zaio, eta honetarako eskubidea duela:

- Doako lege-laguntza.
- Prozesu penalaren parte izateko eskubidea.
- Babes pertsonalerako laguntzak eskatzekoa.
- Banaketa zibilerako aldi baterako neurriak eskatzekoa.

Salaketaren kudeaketa

Biktimak salaketa jarri nahi badu, esku-hartzearen eskumen nagusia Ertzaintzak duela jakinaraziko zaio, eta Eibarreko Ertzain-Etxera deituko da kasua helarazteko. Emakumea bere segurtasunaren beldur bada edo bere edo bere seme-alaben edo hirugarren pertsonen segurtasunaren kontrako arrisku-zantzuak badaude, emakumeak Ertzaintzarekin egin behar dituen kudeaketa guztietan eta lekualdatzeetan lagunduko zaio. Era berean, azken lekualdatzea egin arte, zeregin hauek egingo dira:

- Salaketa jartzearen erabilgarritasunaren eta egin beharreko urratsen informazioa ematea.
- Gertakarien txostena egitea, dagokion atestaturik egiteko Ertzaintzari bidaltzeko.
- Laguntza-zerbitzuen berri ematea biktimari.
- Ertzaintzak biktimaren berririk ez duela ikusiz gero, Udaltzaingoak behar dituen datuak emango dizkio

(babes-agindua, etxebizitza, etab.).

- Jarduketa guztia zehatz erregistratuko da eta esku-hartzean jasotako informazioa Gizarte Zerbitzuei helaraziko zaie, biktimak baimena sinatu ostean, esku-hartzearekin eta koordinazioarekin jarrai dezaten.
- Emakumearen segurtasuna bermatzeko, bere arreta profesionalean ez dauden pertsonen ez zaie bere zuzeneko edo zeharkako jarduketaren edo bera dagoen tokiaren informaziorik emango, ezta senideei, bizilagunei edo lagunei ere.

Emakumeak salaketa jarri nahi ez badu, bere eskubideen eta baliabideen inguruan informatu ondoren, kasua Udaleko gizarte-zerbitzuetara bideratzen saiatuko da. Kasu guztietan, *datu pertsonalak erabiltzeko baimena* sinatzeko eskatuko zaio.

Segurtasuna bermatzeko familia-egoitza berehala utzi eta larrialdietarako ostaturik behar bada, adierazitako helbidera lekualdatuko da emakumea, edo udaleko gizarte-zerbitzuekin kontaktatuko da, horren arreta-ordutegitik kanpo, Gizarte Larrialdiekin.

Gizarte-zerbitzuek eskatuta jardutea

Udaltzaingoaren funtzioen artean dago Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek (OGZ) eskatzen dutenean jardutea, kasu hauetan:

- Biktima zaintzea urruntze-agindua lortu bitartean.
- Emakumeari bere etxera laguntzea. Emakumea berriro biktimizatzea ekiditeko, udaltzainak kalez jantzita joaten ahaleginduko dira.
- Hala badagokio, biktimaren etxera poliziaren bereizgarririk gabe joatea Gizarte Zerbitzuekin duen hitzordua entregatzeko.

Epaitegitik urruntze-agindua jasotzen denean, kasua Elgoibarko gizarte-zerbitzuek ere artatzen ote duten egiaztatuko da. Artatzen ez badute, jakinarazi egingo zaie koordinatzeko.

Ertzaintzak eskatuta jardutea

Babes-agindua baldin badago eta Ertzaintzak eskatuz gero, Udaltzaingoak biktima babesten eta zaintzen lagundu ahal izango du, koordinatutako jarduketaren bidez.

Ertzaintzak baloratuko du emakumeak zer nolako arriskua duen eta neurri egokiak erabakiko ditu. Udaltzaingoak, aldiz, babesten nork parte hartuko duen eta nork ez erabakiko du eta hainbat babes-neurri jarriko ditu martxan: emakumeari ausazko bisitak egitea, norabait joaten laguntzea, babeserako operazio puntualak.

6.5 HEZKUNTZA

Jazarpen, sexu-abusu eta/edo jazarpen sexistaren aurrean hezkuntza-komunitateak nola jokatzeko duen definitzen duen erreferentzia orokorreko prozedura Eusko Jaurlaritzak eta Hezkuntza Sailak egindako "Indarkeria matxistaren biktima diren neskato, nerabe eta emakumeei arreta emateko ikastetxeetarako jarraibideak" gidan jasota dago.

SARBIDEA: Emakumeen, haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren berri duen edo oinarridun susmoa duen hezkuntza-komunitateko edozein pertsona helduk, indarkeria fisikoa, psikikoa zein sexuala izan, jazarpena eta intimidazioa barne, ikastetxeko zuzendaritzari idatziz jakinaraziko dio. Egoera horien berri eman dezakete, halaber, beste zerbitzu edo sistema batzuetako langileek (gizarte-zerbitzuek, Poliziak eta osasun langileek... horretarako biktimaren eta familiaren baimena jaso ondoren), hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonen senideek edo haren sare-sozialeko pertsonak edo, salaketa jarri bada, operadore juridikoek.

EAEko hezkuntza-arloari atxikitako langileek emakumeen eta haurren, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean edo horren susmoen aurrean lau egoera bereiz daitezke, indarkeria hori gauzatzen duenaren arabera:

1. **Ikastetxeko ikasle mutil batek beste ikasle baten kontra** emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen duen kasuak edo indarkeria horren susmoa.
2. **Ikastetxeko langile batek ikasle baten kontra** emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen duen kasuak edo indarkeria horren susmoa.
3. **Senideren batek edo ikastetxeko langilea ez den beste pertsona batek ikasle baten kontra** emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen duen kasuak edo indarkeria horren susmoa.
4. **Ikastetxeko emakume langileren baten edo ikasle baten amaren kontra** emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen duen kasuak edo indarkeria horren susmoa.

LARRALDIETAKO egoera : Ikastetxeak emakumearen, haurraren edo nerabearen osotasuna arrisku larrian dagoela balioesten dutenean larrialdietako 112 zenbakira deitu beharko da berehala. Ondoren, haur nesken eta nerabe nesken kasuan, gurasoari, gurasoei edo tutoreari jakinaraziko zaio.

KOMUNIKAZIOA ETA JARDUNA : Komunikazioa eta jarduna kasu motaren arabera izango dira. Gehienez lau agertoki aurreikusten dira:

1. Ikastetxeko langile batek ikasle baten kontra emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen duen kasuan edo indarkeria horren susmoa dagoenean, zentroko zuzendaritzak berehala jakinaraziko dio hezkuntzako ikuskaritzari, aldi berean horrek lurralde-ordezkaritzari emango dio informazioa eta egokia dela estimatzen bada diziplinazko neurriak hartu ahalko dira. Aldi berean, Egoera horiek zehaztasun handiagoz garatzen dira Hezkuntza Sailaren webgunean eskuragarri dagoen "Indarkeria matxistaren biktima diren haur, nerabe eta emakumeei arreta emateko ikastetxeentzako jardunbideak" dokumentuan. haurraren edo nerabearen babesa bermatzen duten zaintza- eta antolaketa-neurriak martxan jarriko dira (larrialdietako esku-hartzea).

Bestalde, familia edo adingabearen legezko tutorea jakinaren gainean jarriko da eta biktimari eta familiari edo legezko tutoreari/tutoreei erreferentziazko pertsona heldu bat esleituko zaie.

2. Senideren batek edo ikastetxeko langilea ez den beste pertsona batek ikasle baten kontra emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen duen kasuak edo indarkeria horren susmoa dagoenean, ikastetxeko zuzendaritzak zuzenen jakinaraziko dio hezkuntzako ikuskaritzari eta laguntza-zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahalko du.

Bestalde, adingabearen familiari edo tutoreari abisatuko zaio. Familiari edo tutore legalei egiten zaien jakinarazpena indarkeria erabili duenaren arabera aldatuko da:

- Aita bada: amari edo tutore neskei egin beharreko esku-hartzeen berri emango zaie.
- Familia-inguruneke beste pertsona bat bada eta ez badago biktimarekin lotuta: familiari edo tutore neskei egin beharreko esku-hartzeen berri emango zaie.

Informazio hori eman ondoren, biktimari eta familiari eta legezko tutoreei/tutoreari erreferentziazko pertsona heldu bat esleituko zaie.

3. Ikastetxeko emakume langileren baten edo ikasle baten amaren kontra emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen den kasuetan edo indarkeria horren susmoa dagoenean, ikastetxeko_zuzendaritzak berehala jakinaraziko dio hezkuntzako ikuskaritzari eta laguntza-zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahalko du.

Ikastetxean biktimari babesa edota laguntza emango zaio, erreferentziazko pertsona bat eskainiz eta eskolan dauden seme-alabei arreta berezia eskainiko zaie ikastetxeko tutorearen bidez.

Amari tratatu txarrak ematen dizkiona ikastetxeko ikaslea bada: zuzendaritzari horren berri emango zaio eta hark hezkuntzako ikuskaritzari emango dio informazioa. Ondoren, zuzendaritzako taldeak ikastetxeko tutoreari jakinaraziko dio eta zuzendaritzaren eta tutorearen artean banakako plan bat garatuko da eta plan horren jarraipena egingo da.

4. Ikastetxeko ikasle mutil batek beste ikasle baten kontra emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen duen kasuetan edo indarkeria horren susmoa dagoenean, ikastetxeko zuzendaritzak jarduketa- eta koordinazio-prozesuaren erantzukizuna hartuko du, eskola-jazarpen egoeren aurrean EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan esku-hartzeko protokoloa jarraituz.

- A) **Informazio-bilketa:** Zuzendaritzak, familiei jakinarazpena egin aurretik, gertatutako egitateei buruzko datuak eta ebidentziak bilduko ditu⁴² Eskuragarri dagoen informazioa ahalik eta modu diskretuean eta eraginkorrean osatu eta alderatuko da. Behatutakoa eta entzundako ahalik eta era objektiboan eta zehatzenean erregistratuko da. Erantzuna baldintza dezaketen (edo baldintzatu dela pentsaraz dezaketen) eta ustezko lekuko-frogak baliogabetu ditzaketen galderak egitea ekidingo da.
- B) **Aldez aurreko analisia eta larrialdietako esku-hartzeak:** Jasotako informazioa analizatu ondoren, eraso jaso duen biktimaren segurtasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dira berehala. Neurri horiek biktimaren adina eta testuingurua kontuan hartuta hartu beharko dira. Hauek izan daitezke neurriak: erreferentziazko pertsona heldu bat aukeratzea; harreman zuzena duten langileei jakinaraztea edozein gorabehera gertatu ezkerera koordinatua jarduteko; zaintza-neurri diskretuak ezartzea; etab.
- C) **Familiei edota legezko tutoreei egiten zaien lehenengo jakinarazpena:** Bereizitako elkarrizketak egingo dira, alde batetik, biktima den ikasleari eta bere familiari deituko zaio eta, bestetik, ikasle erasotzaileari eta bere familiari, helburu honekin: egitateei buruzko informazioa jakinaraztea eta jasotzea, familiak ezagutzen dituen eta zein neurri hartu dituen jakitea, hartu diren edo hartuko diren larrialdietako neurriei buruzko informazioa ematea, haien iritzia edota gehitu dezaketena jaso, eta egitateak delitu diren jakinaraziko zaie.
- D) **Informazioa osatzea eta aztertzea:** Informazioa osatu ondoren (galdetegien, elkarrizketen eta abarren bidez) indarkeriarik ez dagoela ondorioztatzen bada, ikastetxeak esku-hartze plan bat egingo du eta horretarako hezkuntzako ikuskaritzaren laguntza-zerbitzuaren aholkularitza eskatu beharko du. Planak idatziz jaso behar ditu ikastetxeak ikasleei, familiei, ukitutako gainerako ikasleei eta irakasleei aplikatuko dizkien neurriak, baita larritasunaren arabera erakunde sozial sanitario edo judizialei egingo zaizkien jakinarazpenak. Familiei ekintza-planeko neurrien berri

emango zaie.

Indarkeria egon daitekeela ondorioztatzen bada ustezko biktima babesten jarraitzeko eta txosten bat egiteko ebidentziak biltzen jarraitzeko neurriak hartuko dira.

Bertan indarkeriarik egon ez dela ondorioztatzen bada, bizikidetza ona bultzatzera bideratutako erantzun hezigarri bat proposatuko da. Laguntza-zerbitzuak erantzun horrekin lagunduko du. Aitzitik, indarkeria dagoela ondorioztatzen bada, ikastetxeak martxan jarriko dituen neurriak jasoko dituen bigarren txosten bat egingo da.

Nahiz indarkeria matxista dagoela ondorioztatu, nahiz halako indarkeriarik ez dagoela ondorioztatu, kasuak hezkuntzako ikuskaritzari jakinaraziko zaizkio egitatei ematen zaien kalifikazioa eta, egokia bada, hartuko diren neurriak.

- E) **Jarraipena eta ebaluazioa:** Ikastetxeko zuzendaritzak Jarduketa Planean aurreikusten diren neurriak betetzearen ardura hartuko du, ikastetxeko erreferentziazko ikuskariari aldian-aldian neurri horien betetze-mailari buruzko eta ukitutako ikasleen egoera sozioedukatiboari buruzko informazioa emango dio.

Langileek, Prozedura Kriminalaren Legearekin (259. artikuluekin eta hurrengoekin) bat etorritik, epaitegiari edo Fiskaltzari lehenbailehen ofizioz jakinarazi beharko dizkiote antzematen dituzten emakume helduen aurkako indarkeria matxista-egoerak delitu izan badaitezke, edo biktimari edo hirugarren pertsonari lesio larrien arrisku larria edo hurrekoa ekar badiezaiekete, babesteko berehalako neurriak har daitezke. Hargatik eragotzi gabe biktimak legezko egintzarik ez hasteko eskubidea indarkeria matxistaren aurkako arretarako eta babeserako prestazio publikoen onuradun izateko (Istanbuleko Hitzarmenaren 18. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, 50.5. artikulua). Ekainaren 4ko 8/2021

Lege Organikoak, Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteari buruzkoak (15. artikuluan) ezarritakoarekin bat etorritik, haurren edo nerabe adingabeen aurka erabilitako indarkeriaegoeraren zantzuez jabetzean, epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko zaio eta ustezko babesgabetasun-kasu bat ezagutuz gero, haurrak artatzean espezializatutako gizarte-zerbitzuei ere bai. Dena den, biktimari ofizioz hasten diren prozedura guztien berri eman behar zaio.

Betiere, biktimei jakinarazi behar zaizkie ofizioz hasten diren prozedurak.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista antzematen denean, edo indarkeria susmatzen denean, lehen aipatutako lau kasuetako edozeinetan, biktimei edo, hala badagokio, haien familiei laguntza eta informazioa emango zaie, hezkuntza-arloan zer zerbitzu eta prestaziorako eskubidea izan dezaketen argitzeko, edo behar bezala informazioa eman diezaieke enari emango zaio.

Halaber, laguntza eskain diezaieketen beste sistema batzuetako zerbitzuetara bideratuko dira, batez ere oinarritzko gizarte-

zerbitzuetara, betiere biktimaren alde aurreko baimen informatuarekin. Alde horretatik, biktimen baimen informatua eskatu beharko da, idatziz edo beste zerbitzu batzuetako (erakunde edo sistema desberdinetakoak) profesionali informazioa helarazi ahal izateko moduan.

Biktima horiei eta haien semealabei zuzendutako laguntzak eta prestazioak ere badaude, esparru horretatik kudeatzen direnak. Prozesua hasteko, generoindarkeriaren biktimei (bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeria, 1/2004 Lege Organikoaren arabera) eta/edo haien seme-alabei zuzendutako laguntza- eta prestazio-modalitateetako baten eskaera jasotzen da. Hezkuntzaren arloan, hiru laguntza- eta prestazio-modalitate kudeatzen dira, haiei zuzenduak:

1. Biktimen edota seme-alaben ikasketa-espeditentearen lekualdaketa. Amak edo tutorea den pertsonak egin ditzake ikaslea ikastetxetik aldatzeko eskaeraren izapideak.
2. Biktimentzat edota harekin bizi diren ardurapeko 25 urtetik beherako seme-alabei zuzendutako unibertsitate-ikasketen ordainketaren salbuespena.

Emakumeak eta adin nagusiko seme-alabek aurkez dezakete eskaera unibertsitatean.

3. Emakumeentzako eta seme-alabentzako hezkuntza-bekak. Amak, aitak edo tutoreak aurkez dezake eskaera.

6.6 BERDINTASUNA

Toki-erakundeek, Berdintasun Zerbitzuaren bitartez, emakume eta gizonen berdintasunaren arloko udal-politikak bultzatu, koordinatu, jarraitu eta ebaluatzen dituzte, eta, zehazki, emakumeen aurkako indarkeria matxistari ingurukoak.

Halaber, politika horiek indartu egiten dute indarkeria hori jasaten duten emakumeen arretan eskumena duten zerbitzuekin egiten den lana. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4. artikulua ezartzen du Euskadiko Autonomia erkidegoko udalei dagokiela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arauak legeak xedatzen duenaren arabera gauzatzea.

Gainera, Bergarako Berdintasun Zerbitzuak emakumeen aurkako indarkeria ulertzea, biktimei modu globalean arreta emateko mekanismoak ezartzea, baliabideak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunetik ikustea eta ahalduztze eta normalizazio prozesu baten beharra sustatzen ditu. Informazio-, sentsibilizazio- eta hedapen-ekintzak ere antolatzen ditu (adibidez, azaroaren 25eko Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunari edo herriko jaiei buruzkoak), bai eta politikarientzako, teknikarientzako eta gizarte-arloko langileentzako prestakuntza-ekintzak ere.

Bere eginkizunen artean indarkeria matxista egoeran dauden emakumeei arreta zuzena ematea ez badu ere, “puntu fokala” da udalerrian kasuak antzemateko, erreferentziazkoa baita emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko lanean, bai politikarientzat, bai teknikarientzat, bai gizartearentzat. Gainera, Berdintasun Sailak egiten dituen zenbait ikastaro edo programa kasuak detektatzeko bidea izan daiteke.

Emakumeren batek Berdintasun Zerbitzuari laguntza eskatzen badio, zuzenean edo elkarte eta/edo mugimendu feministen bidez, lehenengo harrera egingo zaio (aurrez aurrekoa edo telefono bidezkoa). Bertan, emakumearen egungo egoerari eta eskaerari buruzko informazioa bilduko da, baliabide eta zerbitzu egokienei buruzko informazioa emateko eta haietara sarbidea errazteko, eta arreta berezia eskainiko zaio Gizarte Zerbitzu en Euskal Sistemarako sarbideari, Bergara Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez.

Horretarako, eta aldez aurretik, emakumearen baimena eskatuko da datuak bildu eta lagatzeari dagokionez, erakunden arteko koordinazioa garatzeko.

Era berean, beste udal zerbitzu batzuek kasuak Berdintasun Zerbitzura bideratu ahal izango dituzte eta, modu koordinatuan, Bergarako Emakumeentzako Jabekuntza Eskolara bideratzea erraztuko da, eta Martxanterak harremanetan jarri ahal izango dira.

Protokoloaren aplikazioa bultzatzea da haren eginkizun nagusia, eta hauek dira haren zeregin nagusiak:

Koordinazio Teknikoko Batzordearekin Koordinatzea

- Sinatu duten eragileen arteko koordinaziorako dinamikak sustatzea eta koordinazioa hobetzea.
- Sinatu duten eragileek Protokolo honen edukiaren eta baliabideen inguruko informazio eguneratuta dutela bermatzea.
- Sinatu duten eragileei kontsultatuta gai-zerrenda egitea, eta taldeko bileretan akta dinamizatu eta jasotzea.
- Koordinazio Teknikoko Batzordearen eta udalerriko beste eragile batzuen arteko harreman eta lankidetzaren egonkorra sustatzea, bizitza-proiektuak garatzeko edota emakumeak ahalduztzeko ekintzak martxan jartzen, horiek goiz antzematen eta prebenitzen lagun dezaten.
- Berdintasun Saila arduratuko da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioaren eta sentsibilizazioaren arloan Gizarte Zerbitzuek eta Udaltzaingoei egiten duten esku-hartzean jardueren koherentzia mantentzeaz.
- Erakunde sinatzaileek aldizka emango diote artatutako kasuen kopuruaren berri Berdintasun Sailari.
- Berdintasun Saila arduratuko da sei hilean behin bilera bat egiteaz, ordura arte egindako lana baloratzeko eta proiektatzeko, eta koordinazioa hobetzeko proposamenak egiteko.

- Berdintasun Sailak prebentzioaren, sentsibilizazioaren edo emakumeen ahalduntzearen arloan egindako programen berri emango die aldizka Gizarte Zerbitzuei, Gizarte Zerbitzuek programa horiek eskaini ahal izateko.
- Halaber, jarduketa-protokoloa berrikusiko da bilera horretan, eskaintako arreta hobetzeko eta behar bezala garatu gabeko alderdiak berrikusteko. Hobekuntzak eta aldaketak egiteko aukera egongo da.

Datuak biltzea eta aztertzea

- •Protokoloa sinatu duten sistema guztien datuak biltzea.
- •Protokoloaren parte diren zerbitzu eta erakundeek bidalitako datuen urteko azterketa egitea.

Hedapena eta prestakuntza

- Protokolo honen edukiak hedatzea langileen artean, sinatu duten eragileen artean eta haien langileen artean.
- Udalerriko beste erakunde, zerbitzu eta elkarteetan hedatzea.
- Sinatu duten eragileek dituzten prestakuntzaren beharrak identifikatzea eta ezagutzak eguneratzea, baita eragile horien lankidetzarekin arreta eta koordinazioa etengabe hobetzeko urteko proposamena egitea ere.

Ezarpenaren ebaluazioa

Protokoloa etengabe hobetzeko, urteko jarraipena egiteaz gain, jarduketa ezinbestekoa da Protokoloa Ebaluatze Unitatearen arduradun gisa. Funtsean, kontuak emateko prozesuak sustatzen ditu, Elgoibarko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren fenomenoaren bilakaera aztertzen du eta indarkeria horren biktimentzat koordinatutako arretan hobekuntzak egiten ditu.

7. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Erakunde sinatzaileen arteko koordinazioa hobetzeko eta protokolo honen etengabeko jarraipena eta ebalua zioa egiteko, parte hartzen duten eragileen arteko Koordinazio Mahaiaren funtzionamendua jarraitu, indartu eta ziurtatuko da.

Mahaiak Berdintasun Arloko Berdintasun teknikariak deitu eta dinamizatuko ditu, eta ardura hauek hartuko ditu bere gain: Mahaiaren bilerak deitzea, dagokion akta egitea eta bilera bakoitza egin ondoren zabaltzea; protokoloaren jarraipena eta funtzionamendu ona bermatzea; eta behar den informazioa biltzea eta urteko d atuen txostena egitea.

KOORDINAZIO TEKNIKOKO MAHAIA

Koordinazio Teknikoaren Mahaia, gutxienez, urtean bitan bilduko da, eta, beharrezkoa denean, ohiz kanpo. Gaiak aldeztatik bidaliko zaizkie gaiarekin zerikusia duten pertsonen.

EGINKIZUNAK:

- Protokoloaren garapena.
- Dokumentua bakoitza bere lan-eremuan hedatzea.
- Datuak jasotzea jarduteko esparruetan.
- Datuen bilketa, sistematizazioa eta estatistiken azterketa egiteko ereduak diseinatzea, eragile sinatzaileek erabil ditzaten; horri esker, salaketan eta/edo laguntza-eskaeren bilakaeraren jarraipena egin ahal izango da, eta udalerrian emakumeen aurkako indarkeriari ematen zaion erantzunaren ikuspegi orokorra eta protokoloaren funtzionamendua lortuko dira.
- Protokoloaren aplikazioan dauden hutsuneak eta/edo hobekuntza beharrak antzematea, bai eta hobekuntza-proposamenak eta gomendioak egitea ere.

Honako hauek osatzen dute:

1. Bergarako Berdintasun-teknikaria
2. Udalerriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen ordezkaria
3. Bergarako Udaltzaingoa
4. Bergarako Ertzain-etxeke Ertzaintzan genero-indarkeriako eta sexu-erasoetako kasuei arreta emateko ardura duen agentea
5. Bergarako Osasun-zentroko ordezkaria

Sinatzaile diren erakunde bakoitzak bermatu beharko du mahaietan parte hartzen duten pertsonen gaian beharrezko ezagutza, konpromisoak hartzeko gaitasuna eta erakundeko edukien eta erabakien zabalkundea bermatzeko ahalmena dutela, protokoloaren aplikazio egokia ziurtatzeko.

KOORDINAZIO MAHAI OROKORRA

Era berean, Berdintasun Arloko Berdintasun Teknikariak deituko eta dinamizatuko du, eta Mahai Teknikoan adierazitako eginkizun berberak izango ditu. Koordinazio Mahai Orokorra gutxienez urtean bitan bilduko da, eta landu beharreko gaiak aldeztatik bidaliko zaizkie parte-hartzaileei.

EGINKIZUNAK:

- Dokumentua lan-esparru bakoitzean zabaltzea.
- Protokoloaren hobekuntza- eta gomendio-proposamenak egitea (bai esparruan bai prozeduretan), biktimen arreta hobetzeko.
- Mahai osoarekin batera, arreta eta koordinazioaren ebaluazioa egitea.
- Kasu garrantzitsuen esku-hartzeak berrikusi eta aztertzea (konplexutasunagatik, arazoagatik edo populazio mota baten adierazgarri direlako), eragileen arteko koordinazioan eta jardueretan hobekuntzak identifikatzeko.

Honako hauekosatzen dute:

1. Bergarako Berdintasun-teknikaria
2. Udalerriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen ordezkaria
3. Bergarako Udaltzaingoa
4. Bergarako Ertzain-etxeko Ertzaintzan genero-indarkeriako eta sexu-erasoetako kasuei arreta emateko ardura duen agentea
5. Bergarako Osasun-zentroko ordezkaria
6. Ikastetxeetako ordezkariak.

KOORDINAZIO MAHAI POLITIKOA

Entitate sinatzaileen ordezkari diren agintari edo arduradunek osatuko dute, eta berdintasun-zerbitzuak dinamizatuko du. Urtean behin gutxienez bilduko da, eta bilera bereziak egingo ditu kideetako batek eskatuz gero.

EGINKIZUNAK:

- Sinatu duten aldean artean jarduteko proposamen bateratuak onartzea, bai eta protokolo honen xedearen arloan hainbat baliabideri eragiten dieten esku-hartzeak eta jarduketak koordinatzea ere.
- Protokoloaren xedearekin lotutako akordioak hartzea, egindako ebaluazioak eta urteko memoria kontuan hartuta
- Koordinazio Mahai Teknikoak eta Orokorrak hartutako erabakien betearazpena bermatzea.
- Bere jarduketara-arloan esleitzen zaizkion beste edozein.

Honako hauekosatzen dute:

- Bergarako Udaleko Alkatea.
- Bergarako Komisaldegiko Ertzaintzaren arduraduna.
- Osakidetza–Euskal Osasun Zerbitzuko Bergarako Osasun Zentroko arduraduna.

Protokolo honen helburuetako bat da emakumeek pairatzen duten indarkeriaren arreta eta prebentzioa hobetzea, bai eta emakume horiek laguntzea eta ahalduntzea ere. Alor horietan, udalerrietako elkarte feministek eta/edo emakumeen elkarteek oso zeregin garrantzitsua dute, batez ere laguntza-zirkuiturako zubi gisa eta emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzen duen espazio gisa. Udalerrri bakoitzeko elkarteak ehundurak dituen ezaugarri desberdinak direla eta, komunikatzeko bideak ezarriko dira eta lankidetzak funtsezkoa izango da horretarako.

8. UDALAREN ERABAKI ETA ERAKUNDEAREN EKINTZA INSTITUZIONALEI BURUZ

Bergarako Udalak, indarkeria matxistaren aurkako borrokan engaiaturik eta erabateko gaitzespen-kultura sortzeko ekintzak garatzeko asmo sendoa izanik, konpromisoa hartzen du udalerrian indarkeria matxistarekin zerikusia duten kasuen aurrean horien aurkako erantzun instituzional egokia eta beharrezkoa emateko.

Zentzu honetan, udalak ezagutzen dituen kasuen aurrean erantzun proportzionatua emango du, etengabeko hausnarketa-lanari lotua, **biktimentzako erreparazio**-ekintzatzat hartu ahal izan dadin, eta aldi berean, biktimei baldintzarik gabeko babes emango die, eta herritarrei dei egingo die babes horrekin bat egiteko eta udalerriarekin zerikusirik duten indarkeria-adierazpen guztiak baztertzeko.

Erantzun instituzional honek helburu hauek bete nahi ditu:

- o Biktimari, haren senideei eta ingurukoei laguntza adieraztea, biktimak jarraitu beharreko urratsei buruz hartutako erabakia ere errespetatuta.
- o Baliabide publikoak haren esku jartzea hasiera-hasieratik.
- o Indarkeria hori publikoki arbuizatzea, herritarrak sensibilizatzeko, indarkeriaren egiturazko azterketa eginez, unean uneko gertaeretatik haratago.

8.1. ERANTZUN INSTITUZIONALA BERGARAKO UDALERRIAN

Bergaran dagoeneko erantzun hau eratuta dago Udalaren eta mugimendu feministako Martxanarak taldearen artean, eta horrela islatzen da dokumentu ofizial batean. Jarraibide horietan oinarrituta, protokoloaren atal honek gaur arte egindako lana osatzeko helburua du.

Udalerrian, indarkeria matxistarekin zerikusia duten gertakariak daudenean, herritarren, mugimendu feministaren, politikarien eta udal teknikarien arteko dinamikak sortzen dira. Dinamika hauek ez dira beti aldekoak izango erantzun publiko instituzionala aktibatzeke, biktimei eragindako kaltea erreparatzeko eta bizitako indarkeria salatzeke.¹⁷

Gertaera horiek ematen direnean, ez da beti ingurune egokia izaten biktimak erantzun publikoa abian jartzea erabakitzeke. Batzuetan, gertakarien zurrumurruak sortzen dira, horiek biktimaren testigantza eta kontakizuna zalantzan jartzen dituzte, emakumea birbiktimizatu egin daiteke eta ingurugiro bortitz bat sortu.

Era berean, horrelako testuinguruetan gerta liteke jendeak edo inguruko batzuek erasotzailearen ekintzak justifikatzea edo biktimak kontatzen dituen gertakariei garrantzia kentzea. Giro honetan, mugimendu feministak, biktimarekiko elkartasuna eta babes erakusteko, erakunde publikoaren erantzun azkarra eta irmoa eska dezake. Komunikabideetatik ere presioa sortu daiteke, eta baliteke horren ondorioz erakunde publikoaren erantzun publikoa egokiena ez izatea.

Hori dena presioa eragiten duen ingurugiro batean gertatu ohi da, eta horretan ezinbestekoa da biktimaren erritmoa eta erabakiak errespetatzea, betiere gertakarien aurrean erakunde publikoen erantzukizuna ahaztu barik. Beraz, erantzun publikoa lantzerakoan, argi izan behar dira herritarrei dei egiteko helburu nagusiak:

1. Biktimari eta haren inguruari **elkartasuna eta babes adieraztea**. Horretarako, lehentasuna izan behar da biktimak behar duen arreta izatea; hau da, indarkeria-kasu bat ezagutzen denean, lehen urratsa da biktimaren eta horren ingurunearen egoerari eta premiei erantzutea, horretarako dauden beharrezko zerbitzuak aktibatuz, bai eta *ad hoc* laguntzekin erantzun ere baldin eta egoera horri erantzuteko ibilbide argirik ez badago.
2. Era berean, kontuan hartu behar da erakundearen erantzun publikoa **erreparazio neurri** bat dela, eta, beraz, beti biktimaren borondatea errespetatuz egin behar dela; horrenbestez, biktimek aukera izan behar dute egin nahi dutena eta nola egin nahi duten adierazteko.
3. Indarkeria matxistaren **gaitzespen publikoa** egitea. Ildo horretan, herritarren erantzunak funtzio pedagogikoa bete behar du, herritarrak sensibilizatzeko eta indarkeria matxistaren aurrean kontzientziatzeko. Horretarako, alde batetik, indarkeria matxistaren egitura-izaera nabarmendu behar da udalerriek herritarrei zuzentzen dizkieten mezuetan, oinarritzko informazioa transmitituz, indarkeria mota bakoitzaren izaera eta ezaugarriak

¹⁷ Kontuan izan behar da erakunde publikoak gaiari buruzko etengabeko hausnarketa egiteko konpromisoa hartu behar duela, erantzun egokiena bilatzeko helburuarekin.

ulertzeko; eta, beste alde batetik, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren esparruan betetzen duen funtzio soziala ere nabarmendu behar da.

8.2.- ERAKUNDEEN ERANTZUN PUBLIKOA ANTOLATZEA, BETIERE KASUA PUBLIKOA DENEAN EDO EMAKUMEAK ERANTZUN PUBLIKOA AKTIBATU NAHI DUENEAN


Bergarako Udaleko teknikari, politikari edo mugimendu feministak¹⁸ udalerriarekin zerikusia duen indarkeria matxistaren kasuren baten berri badu eta informazio iturri fidagarri¹⁹ batetik badator (biktima berak esan duelako, haren inguruneak, artatu duen erakunde batek edo mugimendu feministak, edo bestela, eraso esparru publikoan gertatu delako), udal teknikari eta dagokion zinegotziaren artean informazioa baloratuko dute eta, beharrezkoa izanez gero, konfirmatu egingo dute, batez ere informazioa komunikabideetatik edo sare sozialen bitartez jaso bada.

Informazioa egiaztatu ondoren, protokoloa aktibatu egingo da –publikoa denean edo emakumeak hala nahi duenean– honako kasu hauetan:

- Erasoa udalerrian gertatu bada.
- Erasoa udalerritik kanpo gertatu bada baina emakumea edo erasotzailea bertakoak badira edo udalerriarekin lotura badute.
- Erasoa eskualdean gertatu bada.
- Hirugarren pertsona bati eraso egin badiote biktima defendatzeagatik edo laguntzeagatik.
- EAEn emakumeren bat edo haren seme-alabak erail badira.

Egoera horietako bat gertatzen bada, edo zerrenda honetan jasota ez dagoen beste bat gertatzen bada baina erantzun publiko instituzionala emateko modukoa bada nahikoa larritzat jotzen delako, lehenengo urratsak emango dira:


Garrantzitsua da adieraztea inplikaturako eragileen arteko koordinazio lanean biktimaren **intimitatea eta integritate**



euren rola eta non amaitzen den beren funtzioa, inplikaturako gainerako alderdien lana ez oztopatzeko.

¹⁸ Martxanterak talde feministak bi emakume izendatuko ditu Udalarekin komunikazioa izateko

¹⁹ Adostu behar da “iturri fidagarri” horren esanahia testuinguru honetan.



lehentasuna biktimarekin elkarbizitza hastea da, baina horrek ez du esan nahi udalak ustezko erasotzaileari eta haren gertuko inguruari ezin dionik entzun. Hala ere, udalak argi izan behar du ezin duela epailearen rola bere gain hartu, ezta bere iritzia pertsonalenetan oinarritutako erabakirik hartu ere. Horregatik, nahasmendua eta zalantzak daudenean garrantzitsua izan daiteke kanpoko aditu baten ikuspegia izatea²⁰.

Kanpoko laguntza eta aholkularitza


Lehen uneetan hartzen diren erabakiak garrantzitsuak dira, horregatik ez da zalantzarik izan behar kanpoko laguntza edo aholkularitza eskatzerakoan. Erantzun publikoari buruzko edozein zalantza izanez gero, jarri harremanetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoarekin.

7.2.1 Erakundearen erantzun publikoaren antolaketa: Koordinazio mekanismoak aktibatzen dira

Koordinazio-mekanismoak abian jarriko dira behin kasua baloratu ondoren, biktimari eta haren inguruneari behar diren laguntzak abian jarri ondoren eta hark erantzun publiko instituzionala ematea garrantzitsua dela uste duenean. Horrek ez du esan nahi biktima gehiago zamatzea behar denik, ardurak gehiago bere gain jarritz.

Komeni da koordinazio-egiturak gertaerak gertatu aurretik egotea, baina horrela ez bada, koordinazio-mahaia ezar daiteke eta bertan politikariek, teknikariek eta mugimendu feministak parte hartuko dute.

²⁰ Foru Aldundiako Berdintasun Sailarekin harremanetan jartzeko aukera egongo da.



- Parte hartzen duten eragile guztientzat argi geratu behar da erantzunaren erabakia biktimak duela, eta politikariek biktimarekin eta haren ingurunearekin koordinatuta adostutako erantzun instituzionala erabakitzen dute, udal teknikari eta mugimendu feministaren iritzia kontuan izanda.
- Erantzun publikoa martxan jartzeko bilera bat egingo dute zinegotzi arduradunak²¹, indarkeria kasuak artatzen dituen teknikariak eta Berdintasun teknikariak, egoera hauetan adostutakoa martxan jartzeko.
- Zinegotzi arduradunak oposizioari gertatutakoaren berri emango dio.
- Zinegotzi honek edo Berdintasun teknikariak udaleko prentsa-arduradunari jakinaraziko dio, eta adostutako oharra argitaratuko da (sare sozialetan/prentsan).

²¹ Berdintasun zinegotzia izango da erreferentziazko politikaria eta arduraduna indarkeria matxista kasu baten aurrean

Garrantzitsua da koordinazio horretan beste alderdi batzuk ere kontuan hartzea.

8.3. INDARKERIA MATXISTAKO KASUEN AURREAN ERANTZUN PUBLIKOAK EMATEKO MODUAK



Aipatu den moduan, dagoeneko Martxantera talde feministaren eta Udalaren arteko dokumentu ofizial bat dago, erantzun publikoa nola gauzatuko den adostuz. Dokumentuan adostu diren akordioak protokoloaren eranskinetan (5. Eranskina) ikus daitezke.

Erantzun publiko instituzionalaren eragina baloratu ondoren, adostutako jarduerak gauzatuko dira, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

Erakundearen jardun publikoak modu koordinatuan planifikatzea, espero diren emaitzak lortzen direla ziurtatzeko.

Garrantzitsua da erantzun publikoan mezu bat adostea, indarkeriaren egitura-izaera eta funtzio soziala azpimarratuz

Erantzun publiko antolatzerakoan, honako hauek hartu behar dira kontuan:

Testuingurua: Gertaeratik haratago, azaldu behar da indarkeria matxista normalizatu den eta onartezina den gizarte batean bizi garela.

Azaldu indarkeriaren arrazoiak: Azaldu egin behar da, biktimaren eta/edo haren ingurunearen eta familiaren integritatea arriskuan jarri gabe.

Erasoa adingabeen artean gertatu bada: *Adingabearen interes gorenaren printzipioa* errespetatuz, familiarekin edo legezko tutoreekin harremanetan jarri beharko da, eta erantzun publiko mota baloratuko da. Biktimari eta haren

inguruneari arreta berezia emanago zaio, erasoa egin duenari, haren inguruneari, familiari eta erreferentzia-taldeari arreta ematean²².

Aurreko kasuan, garrantzitsua da erantzun publiko bat egitea, adingabe guztiak babestearen garrantzia azpimarratzeko, eta bereziki azpimarratzeko babes hori, kasua hedabideen eta sare sozialen bidez zabaldu bada.

Gainera, bi motatako erantzun publikoak daude:

Gertaera **zehatz bati erantzun**, biktimaren edo haren ingurukoen baimenarekin.

Indarkeria matxistaren kasu guztiak salatzeke udalaren **ekintzak publiko egitea**.

Erantzun horiek ekintza hauen bidez martxan jar daitezke:

Kasu bat behar bezala ezagutzen denean, erakundeek biktimei laguntza ematen dietela adieraziz, egoeraren arabera egokienak diren bideak erabiliz. **Laguntza horrek ez du zerikusirik biktimak salaketa jarri izanarekin**, ulertzen baita neurri hori emakume bakoitzak bere inguruabarren arabera baloratzen duela.

Emakumeei, senideei eta hurbileko beste pertsona batzuei **beharrezko laguntza** bermatzea, udal-baliabideen eta aktibatu daitezkeen beste batzuen bidez. Kasua eskualdean gertatzen bada eta gertatutako udalean ez balego baliabide egokirik, udalen arteko elkarlana sustatuko litzateke, familiari beharrezko arreta eskaintzeko.

Indarkeria matxistaren kasu partikularrak gaitzesten direla jakitera emanez, biktimen edo gertuko pertsonen baimenarekin, eta jarduteko moduarekin ados daudela ziurtatuz.

Erantzuna berehalakoa izango da, baina horrek ez du esan nahi egitateak ezagutzen diren egun berean edo hurrengoan eman behar denik. Zentzuzko denbora itxaron daiteke, biktimek jarduketa horiek baloratu ahal izateko.

Erantzun bat emateko herritarren eskaerak jasotzen badira eta biktimaren baimenik ez badago, **egoera aipatu ahal izango da jakinarazpen batean**, eta bertan jakinaraziko da udala barne-lana egiten ari dela eta biktimarekiko harremanetan dagoela.

Egun berezi batzuetan **jendaurreko ekitaldiak egingo dira**: martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko egunean, azaroaren 25ean (emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna) eta ekainaren 28a (LGTBIAQ+ harrotasunaren nazioarteko eguna).

Kontu-ematea egingo da urtero, eta datu batzuk argitaratuko dira: kasu kopurua, udalak emandako erantzuna, eskainitako zerbitzuak eta abar.

Erantzun publikoa honako ezaugarri hauek betetzen direnean aktibatuko da:

Erasoa udalerrian gertatzen denean.

Erasoa udalerritik kanpo gertatzen bada, baina emakume-biktima edo erasotzailea udalerrikoak badira edota edota udalerriarekin lotura badute.

Erasoa eskualdean gertatu bada.

Biktima defendatzeagatik edo hari laguntzeagatik hirugarren pertsona bati eraso egin badiote.

Euskal Autonomia Elkartearen emakumeren bat edo haren seme-alabaren bat erail badira.


²² Adingabeen kasuan, garrantzitsua da zigor-neurriak bakarrik ez ezartzea, erantzun-ekintzak ingurunean sentsibilizazio-lan pedagogikoa egitera bideratuta, eta biktimari eta haren inguruneari zuzendutako erreparazio-neurriak abian jarrita.


Jarraian, erantzun publikoko agertoki hauek proposatzen dira:

0. EGOERA- EMAKUNDEK AKTIBATZEN DUENA

(JARRAIPEN BATZORDEAREN 2013ko MAIATZEKO ERAKUNDE ARTEKO II. AKORDIOAREN JARRAIPEN AKORDIOA, ETXEKO TRATU TXARREN ETA SEXU ERASOEN ONDORIOZKO HERIOTZEN AURREAN JARDUTEKO PROZEDURA) IKUSI ERANSKINA

OKOLOA





1. ESZENATOKIAK HURRENGO KAUSETARA EGOKITU AHAL DITU ERANTZUNAK

- Emakume biktimaren integritate fisikoa arriskuan jartzen duen lesio larriak eragiten duen eraso.
- Eraso sexualak edo erasoarekin ematen diren eta eraso larriagotzen duten beste egoera batzuk.
- Gune publikoetan eta beste pertsona batzuen aurrean gertatu diren erasoak.
- Bere ezaugarriak direla eta, udalerrian alarma soziala piztu ahal duten erasoak.
- LGTBIQA+ kolektiboko pertsonen eragindako edozein eraso.
- Biktimak bere kasua publiko bihurtzea nahi ez duen erasoetan, baldin eta bere izena eta erasotzailearena etengabe aipatzen badira, eta Udalak komunikatu baten bidez, zabalduetako zurrumurruak eta balorazioak geldiarazi behar baditu.
- Indarkeria matxista egoera guztietan, larria izanda ala ez, baldin eta, indarkeria horren ezaugarriak eta eragina baloratu ondoren, eskubideak bereziki urratu direla uste bada eta aurreko puntuetan jasota ez badago.

8.4 ERAKUNDEEN ERANTZUNAREN JARRAIPENA

Finkatutako helburuak bete direla eta erakundearen erantzuna finkatutako irizpideen eta printzipioen arabera eman dela egiaztatu ahal izateko, ezinbestekoa da horien jarraipena egitea.

Erantzun publikoaren jarraipenak honako helburu hauek izango ditu:


- Biktimei eta haien familiei arretea emateko adostutako neurriak aurrera eraman direla egiaztatzea.
- Erasoaren hasierako inpaktua pasatu ondoren sortu diren beste premia batzuk ikertzea, baita horiek nola erantzun diren eta/edo artatu behar diren ere.
- Kasu bakoitzean edo urtebetean gertatu diren kasuetan egin daitezkeen konponketa-neurriak baloratzea.
- Behar diren aldaketak egiteko erabakitakoaren eraginkortasuna eta jarduna ebaluatzea.
- Ziurtatzea gai honetako ikaskuntzak sistema hobetzeko txertatzen direla, eta ezagutza eta informazioa sortzen direla, horien baliozkotasuna integratu eta ebaluatzeko.

ERASKINA 1 SISTEMEN JARDUKETEN DIAGRAMA


1.1 Arreta arrunta



Arreta larrialdikoa:



Sexu indarkeria:



1.4 Glosarioa

OGZ: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

SCUS: Gizarte Larrialdiak Koordinatzeko Zerbitzua (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak itxita daudenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen ditu gizarte larrialdiak)

BLZ: Biktimari laguntzeko zerbitzua, hainbat diziplinako profesionalek osatua (legelariak, gizarte-langileak eta psikologoak), Justizia Zuzendaritzak biktimen eskura jarria.

SATEVI: Etxeko indarkeriaren eta/edo sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako 24 orduko informazio eta arreta zerbitzua.

GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia

2.ERANSKINA: UDALEKO, FORU ALDUNDIKO ETA AUTONOMIAKO BALIABIDEAK

Bergarako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

E-posta: ongizatea@bergara.eus

Telefono zenbakia: 943 77 91 00 eta luzapena: 1210

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 8:30etatik 13:30era arte

Berdintasun Zerbitzua

E-posta: berdintasuna@bergara.eus

Telefono zenbakia: 943 77 91 00 eta luzapena: 1218

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 8:30etatik 13:30era arte

Udaltzaingoak

E-posta: udaltzaingoa@bergara.eus

Telefono zenbakia: 943 77 91 06 edo 092

Ordutegia: 06:00etatik 22:00ak arte

Telefono bidezko 24 orduko arreta-zerbitzua: 900 840 111(SATEVI)

Zerbitzuak Autonomia mailako estaldura du, eta doakoa da. Zerbitzu hori eguneko 24 orduetan dago erabilgarri, urteko 365 egunetan. Gainera, hainbat hizkuntzataraz itzultzeko aldibereko zerbitzua eskaintzen du, eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzat eskuragarri dago.

- Informazio-baliabide hori ere eskuragarri dago indarkeriaren biktima den emakumeari laguntzeko moduari buruzko informazioa nahi duten senide, lagun eta beste pertsona batzuentzat.
- Baliabideak, halaber, hainbat esparrutako profesionalen informazio-beharrei erantzuten die.
- Zenbaki horretara datoz 016 telefono-zenbakiaren deiak, Estatuaren eskumeneko telefonoa. Garrantzitsua da emakumeei ohartaraztea 016 zenbakiak telefono-fakturan aztarnarik uzten ez badu ere, deien erregistroan agertzen dela, bai mugikorrean, bai telefono finkoan; beraz, deia egin ondoren ezabatu egin behar da.

Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua: 24 orduko arreta. 943 224 411/ 112 (SOS Deiak)

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak zerbitzu bat du, Gipuzkoan etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria bizi dituzten emakumeen premiazko segurtasun-eskaerei erantzuten diena. Egoeraren balorazioa egin ondoren, hala eskatzen bada, harrera-baliabidera lagunduko zaio emakumeari, haren bizilekuaren arabera. Ordutegia eguneko 24 orduetan dago eskuragarri urte osoan.

Biktimari Laguntzeko Gipuzkoako Doako Zerbitzua (BLZ). 900 100 928

Zerbitzu hori Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailaren mende dago. Aurrez aurreko zerbitzua da, aurretiko hitzorduarekin.

Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politikako Departamentua, Gizarte Larrialdietako eta Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeentzako Arretako Atala. 943 113 176/ 943 112 572.

Aldundien arreta sozio juridikoko eta psikologikoko baliabideak koordinatzen ditu, banakakoak zein taldekoak, egonaldi labur eta ertainekoak, eta baita autonomia- pisuak eta esku-hartze sozio edukatiboko pisuak ere.

«Urrats» Larrialdietako Harrera Zentroak berehalako harrera ematen die Gipuzkoan genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimak izan diren eta beren bizilekua utzi behar duten emakume guztiei, eta baita eragindako emakumearen mendeko familia-unitateko pertsonak ere. Baliabide hori Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuaren (943 224 411) edo oinarritzko gizarte-zerbitzuen bidez eskuratzen da.

Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2.Epaitegia (Bergara). 943 038 051

Legezko prozedurak izapidetzen dituzte inguruan gertatzen diren genero-indarkeriako kasuetan.

Debagoieneko Eskualdeko Ospitalea (OSI DEBAGOIENA). 943 035 300

3.ERANSKINA: ARLO EZBERDINETAKO BALIABIDE INTERESGARRIAK

Osasun-arloa:

Osakidetzako osasun-profesionalentzako jarduera-gida genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean

Genero-indarkeriaren biktimak diren seme-alaben aurrean osasun-arloko profesionalek jarduteko gida

Hezkuntza-esparrua:

Ikastetxeetarako jarraibideak, indarkeria matxistaren biktimak, nerabe eta neskatokiei arreta emateko

4. ERANSKINA: IZAERA PERTSONALEKO DATUEI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEKO ETA DATU HORIEK ERABILTZEKO
BAIMENA EMATEKO AKTA. ERTZAINITZA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Ertzaintzaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de la Ertzaintza

FM0093 V.05

ERTZAINITZA

ACTA DE INFORMACIÓN Y CONSENTIMIENTO DE UTILIZACIÓN DE DATOS
DE CARÁCTER PERSONAL

Expediente de VD/VG: _____

Dña./D.: _____,

con D.N.I. / Pasaporte / Permiso de residencia / Otro documento de identificación:

sin perjuicio de las previsiones y supuestos de cesión de datos que ampara la regulación establecida en materia de protección de datos de carácter personal; por medio de la presente Acta

1. Se informa que los datos de carácter personal, así como la información vinculada con este expediente:

- En el ámbito de la Ertzaintza serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento prevista para la gestión de actuaciones e investigaciones relacionadas con la protección en el ámbito de Violencia Doméstica / Violencia de Género (EBA).

2. Asimismo, se solicita consentimiento a la citada persona para que tales datos así como la información que resulte necesaria,

- Puedan ser puestos a disposición del Servicio de Atención Telefónica a Mujeres Víctimas de Violencia de Género (SATEVI), pudiéndose realizar encuestas de satisfacción para dar respuesta al seguimiento del cumplimiento efectivo de los derechos reconocidos a las víctimas.

Da consentimiento Sí ☐ No ☐

- Puedan ser puestos a disposición de otros organismos que requieran la información para desarrollar su labor de asistencia social y defensa de los derechos de las víctimas; o para solicitar a estos información, todo ello, a fin de dar eficaz respuesta a la gestión integral de la asistencia a las personas víctimas de la violencia de género.

Da consentimiento Sí ☐ No ☐

Fecha: ____/____/____

Firma:

Usted tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, o a la limitación de su tratamiento, ejercitando estos derechos ante el Responsable del tratamiento (Viceconsejería de Seguridad-CEDPE) mediante el procedimiento de ejercicio de derechos en materia de protección de datos: www.euskadi.eus/servicios/10842/. Así mismo, usted tiene la potestad de dirigir cualquier reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos (Beato Tomás de Zumarraga, 71, 3ª planta, 01008 Vitoria-Gasteiz) o puede realizar una reclamación previa ante el CEDPE -Centro de Elaboración de Datos de la Policía de Euskadi- sito en Larrauri Mendotxe Bidea nº 18, 48950 Erandio dgvs@seg.euskadi.eus.

4. ERANSKINA: DATU PERTSONALAK LAGATZEKO BAIMENAREN AKTA

DATU PERTSONALAK LAGATZEA

CESIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

Izen-abizenak <i>Nombre-apellidos</i>	
NAN – Pasaportea - Egoitza-baimena - Beste identifikazio-agiri bat <i>DNI – Pasaporte - Permiso de residencia - Otro documento de identificación</i>	

Legezko ordezkaria edo arduraduna²³ *Representante legal o persona responsable*

Izen-abizenak / Nombre-apellidos	
NAN – Pasaportea - Egoitza-baimena - Beste identifikazio-agiri bat <i>DNI – Pasaporte - Permiso de residencia - Otro documento de identificación</i>	
Harreman mota <i>Tipo de relación</i>	

Idazki honen bidez, berariaz adierazten dut _____ honako hauek jakinarazi dizkidala: - Emandako datu pertsonalak BERGARAN INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO JARDUERA- ETA KOORDINAZIO II. PROTOKOLOA izeneko fitxategian sartuko dira. Fitxategi horren titularra Udala da. Fitxategiaren helburua da niri eta nire ardurapeko pertsonen arreta osoa eskaintzea, zerbitzuaren jardura koordinatuz.	<i>Por medio de este escrito hago constar expresamente que he sido informada por de que:</i> <i>-Los datos personales proporcionados se incorporarán a un fichero denominado II. PROTOCOLO DE ACTUACIÓN Y COORDINACIÓN INTERINSTITUCIONAL PARA LA ATENCIÓN A MUJERES VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA EN BERGARA cuya titularidad es del Ayuntamiento. La finalidad del fichero es ofrecerme atención integral a mí y a las personas bajo mi responsabilidad, coordinando la actividad del servicio</i>
Informazio horrek datu objektiboetan oinarritutako politika publikoak egiten lagunduko du, eta, aldi berean, estatistika- eta ikerketa-helburuetarako erabili ahal izango da. Era berean, eskubide hauek ditut: - Baimen hau osorik edo zati batean emateari uko egiteko eskubidea. - Era berean, ezezko horrek izan ditzakeen ondorioen berri emango didate. - Bergarako Udalean datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta horien aurka egiteko eskubideak erabil ditzaket. Eta horren guztiaren arabera, askatasunez ematen dut baimena, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorraren arabera.	<i>Esta información ayudará en la elaboración de políticas públicas basadas en datos objetivos al mismo tiempo que podrá ser utilizada para finalidades estadísticas y de investigación.</i> <i>Así mismo, tengo derecho:</i> - <i>A negarme a facilitar esta autorización de forma total o parcial.</i> - <i>Se me ha informado así mismo de las consecuencias que esta negativa puede tener.</i> - <i>A ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición ante el Ayuntamiento de Bergara.</i> <i>Y conforme a todo ello, otorgo libremente el consentimiento conforme a la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y el Reglamento</i>

²³ Behar izanez gero bakarrik bete - Cumplimentar solo en caso necesario

Bergaran, 2023koren(e)an	<i>General Europeo de Protección de Datos.</i> <i>En Bergara, a..... de del 2023</i>
Sinadura/Firma	

Esku-hartze integral eta koordinaturako nire datu pertsonalak lagatzeko aukera ematen diet markatutako erakundeei: ☐ Bergarako Gizarte Zerbitzuak ☐ Osasuna (Osakidetza) ☐ Bergarako ikastetxeak ☐ Eusko Jaurilaritzaren Segurtasuna (Ertzaintza) ☐ Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politikako Departamentua ☐ Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua ☐ Gipuzkoako BLZ ☐ Lehenengo Auzialdiko eta Instrukzio 3^o Epaitegia ☐ Enplegua (Lanbide) ☐ Berdintasuna (Emakunde) ☐ ArartekoA ☐(e)ko Abegi-etxea ☐ Zerbitzu juridikoa ☐ Zerbitzu psikologikoa ☐ Haurren Foru Zerbitzua ☐ SEPE Enplegu Zerbitzu Publikoa ☐ Elkarte ☐ Abokatua ☐ Beste zerbitzu batzuk (berariaz identifikatu)	<i>Marco las entidades a las que permito se cedan mis datos personales para una intervención integral y coordinada:</i> ☐ <i>Servicios Sociales de Bergara</i> ☐ <i>Salud (Osakidetza)</i> ☐ <i>Centros escolares de Bergara</i> ☐ <i>Seguridad del Gobierno Vasco (Ertzaintza)</i> ☐ <i>Diputación Foral de Guipuzkoa. Departamento de Política Social</i> ☐ <i>Servicio Foral de Urgencias Sociales de Guipuzkoa</i> ☐ <i>SAV Gipuzkoa</i> ☐ <i>Juzgados de Primera Instancia e Instrucción nº 3 de Bergara</i> ☐ <i>Empleo (Lanbide)</i> ☐ <i>Igualdad (Emakunde)</i> ☐ <i>Ararteko</i> ☐ <i>Casa de acogida de</i> ☐ <i>Servicio jurídico</i> ☐ <i>Servicio psicológico</i> ☐ <i>Servicio de Infancia Foral</i> ☐ <i>SEPE Servicio Público de Empleo</i> ☐ <i>Asociación</i> ☐ <i>Abogada/o</i> ☐ <i>Otros servicios (identificar expresamente)</i>
BAIMEN INFORMATUA, ADINGABEAK DAUDENEAN Nire alaba/semea 14 urtetik beherakoa denez, baimena ematen dut, ama/tutore naizen aldetik, bere datu pertsonalak jasotzeko eta datu horiek aipatutako erakundeei lagatzeko, eta baimena	CONSENTIMIENTO INFORMADO EN CASO DE PRESENCIA DE MENORES DE EDAD <i>Siendo mi hija/o menor de 14 años, doy mi consentimiento como madre/tutora para la recogida de sus datos personales y su cesión a las entidades mencionadas, autorizando el</i>

ematen dut datu horiek adierazitako ondorioetarako eta helbururako erabiltzeko.	<i>tratamiento de los mismos a efectos y finalidad señalada.</i>
Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau sinatzen dut.	<i>Y para que conste y surta efectos oportunos, firmo la presente.</i>
Data eta emakumearen sinadura / <i>Fecha y firma de la mujer</i>	

5. ERANSKINA: ERAILKETA ETA ERASO MATXISTA KASUETARAKO UDAL ERANTZUNA

Indarkeria matxista jendartean ematen den giza eskubideen urraketa larrietako bat da. Indarkeria hau patriarkatuaren oinarritzko ezaugarri bat da eta azken kausa emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak hainbat mekanismoren bidez sortzea eta birsortzea da.

Indarkeria matxista zuzena izozmendiaren tontorra baino ez da, hau da, ezin ditugu ahaztu, indarkeria matxista sortzea eta birsortzea ahalbidetzen duten egiturazko baldintzak zein baldintza sinboliko eta soziokulturalak. Aukera berdintasunik gabeko gizarteetan, emakume izate hutsagatik emakumeen kontra egiten diren indarkeriazko eraso guztiek osatzen dute indarkeria sexista.

Egoera horretan, emakumeen aurkako indarkeriak gizonen boterea eta emakumeen gaineko kontrola nabarmentzen duen funtzio instrumentala ez ezik, esan bezala, sinbolikoa ere badu. Hori dela eta, emakume guztiei jakinarazten zaie sistema patriarkalaren logika gainditzen badute indarkeriaren biktima izan daitezkeela. Honenbestez, makineria oso baten baitan ematen diren erasoak hainbat eremutan islatzen dira, esaterako: eremu sozial eta ideologikoan, politikoan, kulturean, juridikoan eta ekonomikoan.

Martxoaren 3ko 1/2022 Legearen testu bateginaren arabera —Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako 4/2005 Legea bigarren aldiz aldatzen duenaren arabera— indarkeria da: sexuagatiko indarkeriazko edozein ekintza, emakumeari kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa edo sufrimendua eragiten diona, mehatxua, hertsapena edo askatasun arbitrarioaren ukoa barne.

Mugimendu feministak lortu du duela gutxi arte “arazo familiar edota pribatu” bezala ulertzen zena arazo politiko eta sozial bezala irudikatu eta birkokatzea.

Hori horrela, Bergarako Udalari dagokio, erakunde publikoa den heinean, erantzukizunez eta arduraz jokatzeko, eta EMAKUNDEK, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eudelek ezarritako gidalerroak jarraitzea. Ildo berean, eta terminologiari eta indarkeria moten sailkapenari dagokienez, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako proposamenak aintzat hartu dira.

Begarako Udalak eta Martxanterak emakume talde feministak Euskal Herrian erailketa matxista bat edo eraso bat gertatzen denerako prozedura bat zehazteko beharra ikusi dute. Izan ere, elkarrekin ados jarrita, indarkeria matxistak gaitzesteko ekintza bateratuen deialdiak egitea garrantzitsua da, indarrak batzeko eta salaketa publikoak oihartzun handiagoa izateko. Hori horrela, honakoa adostu da:

Ondorengo kasu guztietan:

- Eudeleko gidaren gomendioak jarraituko dira: “Emakumeen kontrako indarkeria ematen denerako jendaurreko jardueretarako gomendioak”.
- Bergarako udalak edo Martxanterak emakume taldeak prozedura honetan zehazten den kasuren baten berri duenean:
 1. Komunikazioa egongo da, elkarren artean informazioa elkar trukatzeko eta ondorengo pausoak zehazteko. Martxanterak taldeak bi arduradun izendatuko ditu, koordinazioa egiteko. Udalararekiko harremana berdintasun teknikari eta saileko zinegotziaren bidez izango da, astelehenetik ostiralera 15:00ra arte. Orduetegi horretarik kanpo, arloko zinegotzi arduraduna izango da kontaktua.
 2. Zinegotzi arduradunak eta berdintasun teknikariak bilera bat egingo dute, prozedura honetan adostutakoa martxan jartzeko.

3. Zinegotzi arduradunak oposizioari gertatutakoaren berri emango dio.
4. Zinegotzi arduradunak edo berdintasun teknikariak Udaleko prentsa arduradunari jakinaraziko dio, eta adostutako oharra argitaratuko du (sare sozialetan/prentsan).

ERAILKETA IZAN DEN KASUAN

1. Erailketa Bergaran gertatzen bada, emakumea Bergarakoa bada edo une horretan Bergaran bizi bada.
 - Bozeramaileen mahaia deituko da albistearen prentsa idatzian ateratzen den egunean bertan, edota ertzaintzak/udaltzainak ofizialki jakinarazten digutenean. Martxantrak taldeak ere bilera horretan parte hartuko du.
 - Egun horretarako deituta dauden batzordeak bertan behera geratuko dira. Alkateak jakinaraziko die udaleko langileei e-postaz (V. eranskina).
 - Udalak prentsa ohar bidez erailketa matxistaren gaitzespena agertuko du gertatutakoaren berri izatean. Aurretiaz adostutako prentsa ohar ereduaren egongo da eredu moduan jarraitzeko.
 - Martxantrak emakume talde feministak Emakumeen Mundu Martxaren deialdiaren ereduarekin bat eginez, elkarretaratzea egingo du. Erailketa goizean gertatuz gero, egunean bertan egingo da elkarretaratzea, eta arratsaldean izanez gero, berriz, hurrengo egunean. Udalak bat egingo du deialdi horrekin eta herritarrek parte hartzea gonbidatuko ditu. Elkarretaratzea udaletxe aurreko plazan izango da 19:00etan.
 - Dauden giza eta baliabide materialak eskainiko zaizkio familiari:
 - Familiarekin harremanetan jarriko dira: Alkateak edo horretarako delegatzen duen zinegotziak familiari arretoa eskainiko dio (III. eranskinetan gida).
 - Indarkeria matxista kasuetan esku hartzeaz arduratzen den udal teknikariak egoera aztertu eta familiari dauden baliabideen berri emango dio.
 - Baliabideak: seme-alabentzako behar den laguntza. Kasuan kasu dagokion baliabideak.
 - Akusazio partikularra izateko aukera aztertuko da.
 - Webgunean Udaletxearen gaitzespena adieraziko da. Leku ikusgarrian jarriko da adierazpena udalaren webgunean. Eta adierazpenarekin batera, udaletxeko argazkia jarriko da, olanarekin (komunikazio arduradunak).
 - Udaleko eraikin batzuetan indarkeria matxistaren aurkako olanak jarriko dira. Berdintasun teknikariak edo zinegotziak abisua pasako diote dagokionari pankartak jartzeko. Jai egunetan udaltzaingoa arduratuko da honetaz. Leku hauetan jarriko dira: liburutegian, polikiroldegian (Agorrosin) eta Irizar jauregian.

Erailketa eskualdean gertatzen bada

- Udalak prentsa ohar bidez erailketa matxistaren gaitzespena agertuko du, albistearen prentsa idatzian ateratzen den egunean bertan edo hurrengo egunean (arratsaldez gertatzen bada).
- Aurretiaz adostutako prentsa ohar ereduaren egongo da. Elkarretaratzearen eguna eta ordua jarriko dira oharrean, baldin eta ordurako Martxantrak taldearekin koordinatzea lortu bada; bestela, elkarretaratzearen ordua eta eguna Martxantrak taldearekin zehaztutakoan zabalduko ditu udalak.
- Martxantrak emakume talde feministak erailketa gertatu den herriaren deialdiarekin bat egingo du, Emakumeen Mundu Martxaren ereduarekin bat eginez, eta elkarretaratzea egingo dute erailketa gertatu den herrian bertan. Udalak ere bat egingo du deialdi horrekin eta herritarrei elkarretaratzearen parte hartzeko deia luzatuko die. Talderik edo deialdirik ez balego, udalak berak egingo luke deialdia/elkarretaratzea.
- Horrez gain, Emakundek, Eudelek edo/eta eskualdeko Udalek eguerdian elkarretaratzeko deia luzatuko balute, udalak elkarretaratzea egingo luke Udaletxe aurrean.
- Webgunean Udalaren gaitzespen-adierazpena irudikatuko da. Udalaren webgunean leku ikusgarrian jarriko da adierazpena, eta adierazpenarekin batera udaletxeko argazkia jarriko da, olanarekin (komunikazio arduradunak). Udaleko eraikin batzuetan indarkeria sexistaren aurkako olanak jarriko dira.

- Berdintasun teknikariak edo zinegotziak abisua pasako diote dagokionari pankarta jartzeko. Jai egunetan udaltzaingoa arduratuko da honetaz. Leku hauetan jarriko dira: liburutegian, polikiroldegian (Agorrosin) eta Irizar jauregian.
- Heriotza gertatutako udalean ez balego baliabide egokirik, udalen arteko elkarlana sustatuko litzateke, familiari beharrezko arreta eskaintzeko.

Euskal Herrian gertatzen bada

- Udalak prentsa ohar bidez erailketa matxistaren gaitzespena agertuko du, albistea prentsa idatzian ateratzen den egunean bertan edo hurrengo egunean (arratsaldean gertatzen bada). Aurretiaz adostutako prentsa ohar eredu egongo da.

Elkarretaratzearen eguna eta ordua jarriko dira oharrean, baldin eta ordurako Martxantera taldekoekin koordinatzea lortu bada; bestela, elkarretaratzearen ordua eta eguna Martxantera taldearekin zehaztutakoan zabalduko ditu udalak. Horrez gain, Emakundek, Eudelek edo/eta eskualdeko Udalak eguerdirako elkarretaratze deia luzatuko balute, udalak elkarretaratzea egingo luke Udaletxe aurrean.

- Martxantera emakume talde feministak Emakumeen Mundu Martxaren ereduarekin bat eginez, erailketaren albistea prentsa idatzian atera eta 24 ordutara elkarretaratzea egingo du. Udalak bat egingo du deialdi horrekin eta herritarrak parte hartzera gonbidatuko ditu. Elkarretaratzea udaletxe aurreko plazan izango da 19:00etan. Talderik edo deialdirik ez balego, udalak berak egingo luke deialdia. Horrez gain, Emakundek edo/eta Eudelek eguerdian elkarretaratze deia luzatuko balute, udalak elkarretaratzea egingo luke udaletxe aurrean.

- Webgunean Udalaren gaitzespen-adierazpena irudikatuko da. Udalaren webgunean leku ikusgarrian jarriko da adierazpena, eta adierazpenarekin batera udaletxeko argazkia jarriko da, olanarekin (komunikazio arduradunak). Udaleko eraikin batzuetan indarkeria sexistaren aurkako olanak jarriko dira.
- Berdintasun teknikariak edo zinegotziak abisua pasako diote dagokionari pankarta jartzeko. Jai egunetan udaltzaingoa arduratuko da honetaz. Leku hauetan jarriko dira: liburutegian, kiroldegian (Agorrosin) eta Irizar jauregian.

ERASO MATXISTA BERGARAN GERTATU DENEAN, BAINA ERAILKETARIK GABE

Horrelako kasuetan garrantzitsua da Udalaren eta Martxantera taldearen arteko koordinazioa, bakoitzak daukan informazioa elkarbanatzeko eta ondorengo ekintzak adosteko. Behin koordinatuta, ondorengo urratsak jarraituko dira:

- Martxantera taldeak elkarretaratzea egiteko deialdia luzatuko du. Udalak bat egingo du deialdi horrekin eta herritarrak parte hartzera gonbidatuko ditu.
- Emakumeak nahi izanez gero (bere nahia errespetatuko da), erasoaren gaitzespena adieraziko du udalak prentsa-ohar bidez.
- Erasoa jasan duenak hala nahiko balu, Udalak Udaltzainen edo Ertzainen bitartez jasotako informazioa Martxantera taldearekin partekatuko du.
- Dauden baliabide pertsonalak eta materialak eskainiko zaizkie eraso jasan duen emakumeari eta familiari:
 - Laguntza psikologikoa
 - Laguntza sozio-juridikoa
 - Laguntza ekonomikoa
 - Alojamendua
 - Egoera administratiboa erregularizatzeko laguntza
 - Kasuan kasu dagokion bestelako baliabideak

ESKUALDEAN EDO EAEan (Euskal Autonomia Erkidegoan) ERASOA GERTATU DENEAN, ERAILKETA IZAN EZ BADA

Kasu honetan, Emakundek, Gipuzkoako Foru Aldundiak edo Eudelek elkarretaratzea egiteko deia luzatuko balute, udalak bat egingo luke deialdi horrekin eta parte hartuko luke proposatutako salaketa ekintzetan (elkarretaratzea, adierazpena...)